

**MARTIN URIARTE:
EGI BIRIBILLAK**

Aita Martini (1879-1960), Larrean (Zornotza) orain dala 50 urte hil zala eta, egiten deusagu omenalditxo hau. Bera izan zan ‘Karmengo Argia’ aldizkariaren lehenengo zuzendaria. Eta aldizkari honetan asko idatzi eban Karmengo Ordenako santuei buruz, adibidez Teresa Lisieuxkoari buruz, baina batez be gai bi erabili zituan: “Baserri gaiak” eta “Egi biribillak”.

Karmel zenbaki honetan haren “Egi biribillak” argitaratu nahi ditugu. 100 aletan idatzi zituan; ia beste hamabost bat, batzuetan zenbakitu barik, besteetan zenbakituta. Guk Esaera ba-koitzari zenbakitxo bat jarriko deusagu. Esaera batzuk errepi-kuatak be agertzen dira, baina guk berak jarritako ordenan jarriko ditugu.

“Egi biribillak” era desberdinez izenpetuta dagoz: “A. Martin” 41 bider agertzen da, “M”. 16 bider, “Aita Martin” 16 bider, “Aita Martin, K[armel]. O[rdenakoal]” behin; baina 27 bider izenpetu barik doaz.

Sail hau hemen argitaratzea zan hasierako asmoa, baina beste sail txikiagoak “Egi biribillen” antzekoak eta hari berekoak ikusirik, honeek be argitaratu nahi izan ditugu. Sail txiki honeetakoak egilearen izen barik datoz behin edo izan ezik.

Beraz, “Egi biribillen” antz-antzeko esalditxoak agertzen dira idazlan luzeagoen artean kokaturik. Guztiak ez dira multzo berekoak eta goian ezartzen jaken izenburuak berak be hori esan nahi dau. Handik eta hemendik bilduak eta moldatuak dirudie eta, horregaitik edo, ez dator azpian egilearen izenik, baina erraz jo daiteke A. Martin Uriarteren eskua haren biltzaile eta moldatzailetzat.

Idazkera pixka bat egokitu egin dogu, baina gehienetan A. Martin Uriarteren idazkera eta formak gorde ditugu. Ez dogu nahi izan haren testua euskera estandarren ortografiara behartzerik. Esaterako, *in / il* ez dogu erabiltzen, berak erabiltzen dituan *iñ / ill* baino. Eta, jakina, *b* letra be ez dogu erabiltzen. Dana dala, *ta* guztiak *eta* bihurtu ditugu; *y* guztiak *i* eta bizkaierazko aditz laguntzailean datozenak, esaterako, *etorri yako* → *etorri jako*; *s* eta *z* artean aurkitu ditugun akatsak zuzendu egin ditugu. Berak aurreko silaban *i* eta *u* agertzen direnean, artikulua *e* egiteko joera dau. Guk hori zuzendu egin dogu, eta abar.

J. U. – L. B.

EGI-BIRIBILLAK

K-Argia 1 (1931, 8. zk.) 248

1. Jaungoikoaren izatea zeintzuk ukatuten dabe? – Gaiztakeria nok zigortu izatea nai ez dabenak.
2. Betiko zigorrak nok ukatuten dauz? – Dongak izanaz geien irabazi dituenak.
3. Siñesmena zeintzuk galtzen dabe? – Seigarren eta zazpi-garren agindua bete nai ez dabenak.
4. Oraingo askatasuna zeintzuk iragarten dabe? – Txarrera-bakarrik izan daitela gura dabenak.
5. Erlejiño guztiak ontzat zeintzuk daukez? – Bape ez daukienak, eta egizkoa ezin ikusi dabenak.

EGI-BIRIBILLAK

2 (1932, 16. zk.) 106

6. Gizonak orren kaskasoil eta ergel diralako, nor atzipetu (engaiñau), nai daben guztian aurkitu oi dabe.
7. Umeei aberats izaten irakatsi bear jake, baiña lenengo ezeuki edo pobre izaten irakatsi ondoren.
8. Gaiztakeriaz lerrarkor eta etorkor izatea, onbideari guda-kuntza agertutea da.
9. Leunkatuten (lisonja) gaituan guzurra edaten dogu zurrutada andiz, eta saminduten gaituan egia, tangaka.
10. Guzurrak oiñik ez daukala esan oi da. Alan be guzurtia errena (kojua) baiño ariñago atrapatzen da.
11. Gaur eguneko gizonak, ogei urtegaz zarregi dira, eta irurogei urtegaz gazteegi.

12. Bakean bizi gura dauana, gorra, mutua eta itsua izan bear da.
13. Zer garean badakigu, baiña zer izan geintekizan ez dakigu.
14. Gizon zurrak kontuz eta arduraz ibilli bear dau iru gauza oneikaz: andikien mesedeakaz, emakumen txerakaz eta neguko eguraldi ederrakaz.
15. Gizonak or emen batzalduten diran geienetan, bata besteagaitik gaizki jardun eta esateko izan oi da.
16. Diruagaitik (txindi) dana emoten dogu, eta gero dirua bera jaurtzen [jauresten] dogu.
17. Jaungoikoaren aurrean gure salatzailleak izango jakuz, alperrik galdu dogun aldia (denborea), ezetsi dogun pobra (landerra), bakea galduazo deutsogun auzoa.
18. Ara eta ona jolastutearren ibillita, diru askotxu sarri eralgi dozu, eta pobre (txiro) asko goseak ilten dagozala ez dozu gomutau.
19. Adimen argia eta biotz ongillea erakusten dituan aurpegia, iñoiz ez da motza.
20. Gizonak egiz dan baiño geiago dala beti uste dau, eta al dauan baiño gitxiago geienez egiten dau.
21. Ontasuna gizonaren aurpegian irarrita dagoan Jaungoikoaren irribarrea da.
22. Neure adiskideak barre dagianean, poztasun aren zergaitia berak erakutsi bear deust; baiña negar dagianean, bere atsekabea zergaitik dan neuk aurkitu bear dot.

EGI-BIRIBILLAK

2 (1932, 17. zk.) 136

23. Arerioari onu edo kontsejuak emotea, zorakeri andia da. Baiña beragandik onuak artzea, andiangoa da.
24. Miñak sarritan burua ebaten dau.

25. Miñak azurrik ez dauko, baiña azurrek apurtzen badaki.
26. Odei guztiak ez ditue sortuten ekatxak.
27. Besteen zoritxarragaitik negar dagikena, ikusmena gal-tzera eltzen da.
28. Aldia (denborea) errudun guztiak geroago [eta] ariñago bere epaitegira edo tribunalera deituko dituan epaikari zarra da.
29. Gaurko arrautzea, biarko olloa baiño oba da.
30. Gaur zure arerio dana, biar-etzi zure adiskide izan leitekela; eta gaur zure adiskide dana, biar-etzi zure arerio izan leitekela, ez egizu aztu.
31. Gaiztoakaz ez zaitez alkartu; ikatz ixiotuak lez erre edo baltzitu egingo zaitue.
32. Ludiko gure bizialdia, gabaz egiten dan ibiltaldiaren antzeko da.
33. Zeure gogoko ez danari, ondo egiozu; Jaungoikoak eta berak sarituko deusue.
34. Gaztearoa, edertasuna, bizitzea, diruak; urak daroazan lastoa dira. Biarko ezer ez.
35. Ibaiko urak iñoiz ez dabe etzerantz egiten; gizasemeen urteak olantxe dira.
36. Zeure zugatzen artean batek beintzat adar asko euki beiz, igali (frutu) gitxitxoago izango badau be. Bere gerizpean beste zugatzen igaliak gozatsu jateko izango jatzu.
37. Bizitzan lasaitasunari onurari lez begiratu bear jako.
38. Zantzail edo galuts (tunante) bat, bakarrik badabil bildurgarri da; galuts bi batera badabiz, ain bildurgarri ez dira; tunante bi eta lelo (tonto) bat batzandu badira, euron nabaskerien bildurrik ez dago.

39. Min gaizto bat ezpatea baiño bildurgarriago da; ezpatak zauritu, eta min txarraren edenak edo berenoak erail egi-ten gaitu.
40. Zauritua osatu daiteke; pozoitua ez ain errez.

EGI-BIRIBILLAK

2 (1932, 18. zk.) 168

41. Libururik onena, ingozki gitxiagotan geien irakasten dauana da. Onango bat, Kurutzea da.
42. Irakurri egizu asko, goznartu geiago, eta jakintsua izango zara.
43. Gizona, andien noz da? Belauniko otoitzean dagoanean.
44. Guzurtirik andiena zein da? Arroa.
45. Itz (berba) gitxi egizu: jakitunen artean bazara, okerrik ez esateko; eta ezjakiñen artean, aldia alperrik ez galtzeko.
46. Itz larregi egiten dauana, arroa edo zoroa dala sinestu geinke.
47. Norberatzaz ez da bein be itz egin bear, ez alde ez aurka; bere burua goratzen dauana, arroputza da; eta bera-tzen dauana, kaiku bat.
48. Norbaiten itxurari bakarrik ez begiratu: dunbalak (bonbo) zarata andia ataraten daki baiña barruan aizez bete-rik dago.
49. Biotz on baten anditasuna, gaizki egin deutsonari parka-tu (asketsi) deusanean ezagutzen da, zigorkatu gura dauanean baiño obeto.
50. Ezbaian zagozala, zernai oldoztuta be, ez egizu ezer esan. Zalantzan gagozala esaniko itz bategaitik, geuk naiz urkoak uts egitea, tamalgarri litzake.
51. Menpekoei gogorregi aginduten dakienak, bera gogorra-go erabilliko dauana aurkitu leike.

52. Doako ardaua, erosiriko ezia baiño gozoago izan oi da.
53. Bear ez dituan gauzak erosten dituanak, laster saldu bearko dauz bear dituanak.
54. Galdu ezkeru osasuna, orduan da ezaguna.
55. Baserritar kalezale, etxearen ondatzaille.
56. Bat irabazi, bi galdu, au dok biziteko modu.
57. Arrausi luzea, loa edo gosea.
58. Oitura gaiztoa, berandu aztua.

EGI BIRIBILLAK

2 (1932, 19. zk.) 206

59. Gizon andiak, euren aginpiderearen ondorengoak beti daukez, baiña euren zurtasunaren oiñordekoak gitxitan.
60. Besteei agindutea, otseindutea baiño menpekeri andia-goia da.
61. Agintaritzako maillak, mendi maldatsu-zorrotzen antzeko dira: ara bakarrik eltzen dira arrano egalariak edo narrasti diranak.
62. Errugetasuna eta zintzotasuna gaitzetsi edo zigorkatutea, gaiztakeria onestea da.
63. Lenengo zitzaldira (tentaziñora) makurtzen dana, bigarrenera errezago azpiratuko da.
64. Lenengo gudaldia irabazi dauanak, bigarrenari kemen-tsuago ekingo deutso.
65. Luzaroko atsegiña, gogaikarri biurtzen jaku; zoriona, beti da atsegingarri.
66. Euliak eztizan iratsi eta ilten dira; saloberiak (jatun andiak) azken txarra daroe.
67. Gure biziardia zetan igaroten jaku? Lenengo erdia osasuna xautu edo gastatzen, diru-mordotxo bat egiteko; eta bigarren erdia, txindi ori eralgiten, osasunari eusteko.

68. Gaztearoko urterik ederrenak gaixoak zaintzen igaro dituan neskatxa bat, ludiko erririk geien menperatu dituan buruzagi ospetsuena baiño txalogarriago da.
69. Jaungoikoagaz aztuta bizi danak, biotza ustelduta eta bu-rua zimaurrez beterik dauko.
70. Kristoren erlijioak, gizonak jakin bear dituan gauza guz- tiak irakasten dauz: bere jatorria, bere legea eta bere el- buru edo azkena.
71. Iru gauza doguz onak: adiskide zarra, liburu (idazti) za- rra eta ardao zarra.
72. Baba baltza, taloa eta esnea; aonek egiten dabe mutilla sendoa.
73. Sabelak egitean gurgur, barko afaria agur.
74. Jakiteko artzen, ikasi emoten.
75. Nekez arturiko gauza, nekez itzi.
76. Urte askoan mutilzarra, etxeari eusteko age txarra.
77. Oilloa eta nestatilla galtzen dira, etxetik urrun badira.
78. Ez da eperik, goiz edo berandu betetan ez danik.

EGI BIRIBILLAK

2 (1932, 20. zk.) 233

79. Ondo bizi, ondo ilteko eta betiraunean bizitzeko. Auxe da jakiturgia, ganetiko guztia zorakeria.
80. Entzun gura ez dauana gorrik txarrena ez da, entzun gu- ra eta ezin dauana baiño.
81. Gizaseme askok milloi bat pezetak baiño zeregin geiago emoten dabe, eta eurak pezeta bat ez dabe balio.
82. Atsegingarrienetariko gauza bat, goralpenak artzea izan oi jaku, irabazita dagozanean.
83. Beti esker onekoa izatea, deunak bakarrik egin leikeena da.

84. Gaizki egiñak, ondoren beti dakar iguiña, nazka, lotsa eta naigabea.
85. Oldozpen edo gogamen donga batek ez gaizala menperatu, geugandik jaurti daigun bereala; ba irudimenean oldozpen donga bat, asikeran bidazti antzeko da; gero etorkin edo ostalari; azkenean etxejaun.
86. Siñesmen bizi barik, gure asmoen egazkiak ez dau igoten; jaunzaletasun barik, biotza lurreko lokatetik ez da lazkituten.
87. Gizonakaitik egiten dan guztia, otzara baten ipinten dan ura da; Jaungoikoagaitik egiten dana, donokira bialtzen dan urregorri zatia da.
88. Gizasemea, maitasun barik ezin bizi leiteke; eta egizko maitasunaren arnasea uzkurta edo erlejiñoa da.
89. Gaixo naskor batek erabilliko soñekoa ez dozu jantzi gura; eta ondo dago. Orixe egin bear dozu, barruan ainbeste eden eta zital dakarren izparringi eta papel txarrakaz.
90. Zaratarik geien erreka txikiak ateraten dabe; gizaseme askotxu olakoxe ibaien antzeko dira.
91. Aberats izatea ona, izen ona ohea.
92. Aita onaren etxean danak barrez, gaiztoarenean negarrez.
93. Adiskide zarra eta kontuak garbi.
94. Adiskide barriagaitik zarra ez itxi.
95. Adiskide bako bizitza, auzo bako eriotza.
96. Alperra eta nagia, auzorako ohea.
97. Bururik ez dauanak, txapelik bear ez.
98. Soloa zaintzen badozu, soloak zainduko zaitu.
99. Azeria lo da? Oilloak nasai.

EGI BIRIBILLAK

2 (1932, 21. zk.) 273

100. Oneraspena (deboziñoa) biozkada guztien artean bi-
kaiñena eta biozkada bikaiñenen jatorria da.
101. Artu doguzan mesedeak, laster aztuten doguz; egin do-
guzanak, nekez.
102. Gure atsekaberik geienak, geure erruz izan oi jakuz, bes-
teak errudun egiten badoguz be.
103. Emakumeak lotsea galtzera eldu daitezanean, lotsa gitxi
geratuko da ludian.
104. Polita izatea, maitagarri da; baiña polita zareana ez bada-
kizu, maitagarriago zara.
105. Lizunkeria aoan sarri darabilenak, eurak zer diran edo
zer izan gura daben adierazoten dabe.
106. Gizona zerbait egitera ez egizu beartu: egin gura izatera
ekarri egizu. Gizonak zuzen jaurritea (gubernau) orixe da.
107. Bakea eta biguntasuna euki egizuz gizakide guztiakaz;
baiña adiskidetasuna millatik bategaz.
108. Gizon bat eratsiteko, ogerleko bat lupetzara jaurti baiño
ez daukozu.
109. Zorrrak daukezanen legea, arrigarria da; geroago eta astu-
nago dator beti.
110. Auzitan ez zaite asi, etxean iru zaku oneik beterik ez ba-
daukozuz: bat diruz, bestea paperez, irugarrena erospenez.
111. Gizon arroak amaitzen dira, biotz motelak amaitzen dira-
nean.
112. Lotsea arpegian oba da, bizkarrean baiño.
113. Bide okerrez dabillena, argiaren bildur da; zuzenez dabi-
llena, illunaren bildur.
114. Gauza andiak, txiki asko bilduak baiño ez dira.

115. Gizonak egunean gitxienez zazpi bider emazteak nai duana egin oi dau.
116. Emakumeen naikun guztiak onerako balira, on asko egin eta eragingo leukie.
117. Orratzak baiño ariak luzeago izan bear dau.
118. Urruneko lapikoa urrezkoa, ara orduko lurrezkoa.
119. Negu bigunegiak, uda gogorregia.
120. Txakurrak non miña, an mingaiña.
121. Errota ona dabillena da, ez geldirik dagoana.

EGI BIRIBILLAK

2 (1932, 22. zk.) 305

122. Goieskar edo graziazko soiñekoa zuria da, edur utsa baiño zuriago. Edurrak, loituta badago, oso ezain emoten dau.
123. Utsegiteak guztiok doguz. Orreitatik batzuk geuk ezagutzen doguz, beste batzuk geure geideak ezagutzen deuskuez, baiña oneik, adiskide izan arren, beti ez deuskuez oartzen.
124. Zikoitza eta ondatzaillea orren baten dozuz. Aonek dirua eralgiten dau ardura barik; arek bazter baten eskutatzen dau. Biok burua utsik.
125. Mundua (gaudia) Jaungoiko barik izan dala diñozu? Gozartu: arrautza ala oilloa izan zan lenago?
126. Jaungoikoa *bildurrak* egin ebalu uste dozu? Ba Jaungoikoren bildur diranak, *azkarrenak* beti izan dirala jakin bear zeunke.
127. Zuk dana dakizula, diñozu? Tira ba, nondik zatoz?... nora zoaz?... nondik joan bear zara?... Auxe ondo ikasi egizu.
128. Jaungoikorik ez dala-eta, gaiztakerira makurtzen zara. Baiña Jaungoikoa badago?... oldoztu astiro.

129. Onari baiño ariñago siñesten deutzogu gaiztoari, aonek geuk nai doguna esaten deuskulako.
130. Egizko jakintsua, aintzakotzat ez da begiratzen; egizko zoroa bez aintzakotzat.
131. Alperrik Maintton makillatu, ez bada berez onbidetu.
132. Txalopan nagusi asko badira, arrain gitxi.
133. Begi bat asko dau saltzailleak, eun ez ditu naiko erosleak.
134. Gure katuak buztana luze, norbera langoak besteak uste.

EGI BIRIBILLAK

2 (1932, 23. zk.) 337

135. Etxea ondatutea, gauza erreza da, zoro batek egiten dau; baiña etxea jasotea, dakianak bakarrik egin leike.
136. Gitxi irabazten dauana eta larregi eralgiten dauana, txirotzat (pobre) bardin euki zeinkez.
137. Lenengo amabost egunak edonon ondo artzen gaitue; nai zeunkena eurotan lortzeko alegindu zaitetz.
138. Gizonak besteren ixil-gauzak obeto gordetan dauz bereak baiño; emakumeak bestera, besteren ixilpekoak baiño bereak gordetan obeto daki.
139. Landarea aien zintzotik artu egizu, eta ezkon-laguna ama onetik.
140. Biotz zintzo eta kementsuak, larri orduan ezagutzen dira.
141. Guztiei beti ondo esan egiozue, zeure arerio egiten jartzuzanei be bai.
142. Gora igon dabenentzat lokunik astunena, esker onekoa izatea da.
143. Ludi onetan onurarik geien ateraten dabenak, adimen erditsudunak dira. Jakintsuegi direanak, puztu egiten jakuz; eta adin-argi gitxiegiokoak, itsutu.

144. Zeure otsein direanei esan zenkioe: Ondo sarituak izango zarie; baiña eginbearra zintzoro betetan ez badozue, kontuak atara.
145. Jaungoikoa siñetsi, onetsi eta maitatu egizu; bestela obe ez baziña munduratu.
146. Jazarpenik (pertsekuziñorik) ez danean, onak eta dongak naste dabiltz; jazarpenak garbitu eta banandu egiten dauz aizeak garaua eta lastoa lez.
147. Biraoa dabillen tokian, zoritxarra izango da ugarian.

EGI BIRIBILLAK

2 (1932, 24. zk.) 357

148. Zoriona arinka dabil, eta gizonik geienak astiro. Augaitik gitxi dira bera lortzen dabenak.
149. Daukogunagaz ezin atsegindutea, eskatzen doguna ezin eskuratutea baiño txarrago da.
150. Maite izatea eta atsegin-zalekeria, gauza bardiñak ez dira.
151. Biotz zintzoentzat naigaberik andienetariko bat, len adiskide izan ziranen gomutea da.
152. Garaiz datorren iribarre batek, ate asko zabaltzen dauz, laztasun asko samurtzen ditu, odei asko argitzen dauz eta bake asko ekarten daki.
153. Izketaldia, uren antzeko da; garbiena eta argiena da onena.
154. Buru utsa, txerrenaren (deabruaren) landola da.
155. Ludian alperrik ezer be ez da. Izaki gustiak euren elburua edo zeregiña daroe. Izan bear ez leukean bakarra, pekatua da.
156. Osasuna eta omena (izen ona) gauza ederrak dira; zer diran batek ondo ez daki, galduta ikusi arte.
157. Askoren bizitza zer izan dan, itz bitan esan leiteke: lan egin eban jateko, eta jan eban lan egiteko. Edesti laburregia.

158. Kristau aroa, izki bako liburua da.
159. Neguan otzari eta udan beroari bildurrez dagoana, ez da zaldun ez merkatari ona.
160. Itsuak garan arte, begi bakarra gure alkate.
161. Etorriko jatzu kanpotik, botako zaituana etxetik.
162. Aita biltzailleari, seme ondatzaille.

EGI BIRIBILLAK

3 (1933, 25. zk.) 17

163. Jarauntsiz (jatorriz) andikia, aberatsa eta sotilla zara; baiña zeure eikunez zer zara?
164. Norbaiten anditasuna eta edertasuna, ganean edo inguruan daroanetik ez da neurtu bear, gogoz danetik baiño, biotzez eta adimenez.
165. Asko badakizu, ondiño ez dakizuzan gauzak askozaz geiago dira.
166. Aberatsa bazara, ez zaitez arrotu, lurrera laster billuzik biurtuko zara eta.
167. Ezeukia bazara, aberatsagoen bekaitzik (inbidirik) ez egi-
zu izan, jaio lez il be biok bardin egingo zarie eta.
168. Biotz bakoak barre egingo deutse bioztunei, zoroak zent-
zundunei lez; baiña zurrago zeintzuk diran badakigu.
169. Dirua?... Buru ona dauanaren eskuetan ondo dator.
170. Erosten dozun ordukoxe ordaindu egizu, eta zorrak az-
pian ez zaitue iñoiz itoko.
171. Zurikeri edo labankeria, askok errez onesten daben txin-
di guzurrezkoa da.
172. Ixilik egoten, iñok irakatsi baiño len, geuk ikasten bado-
gu, atsekabe gitxiago iruntsiko dogu.
173. Esku bataz garbitzen da bestea, eta biekaz aurpegia.

174. Itz asko ez egin, nai ez badozu uts egin.
 175. Asko dakizu, bizitzen badakizu.
 176. Gatxa ondo dator, bakarrik badator.
 177. Begi guztiak aldi baten, ez dabe negar egiten.

EGI BIRIBILLAK

3 (1933, 26. zk.) 49

178. Gizona gaudiko bakaldun da, zurregi dalako ez, lau oiñekoak ergelago diralako baiño.
 179. Gizarteko burruka guztien sustraia auxe da: batzuk daukena besteak be gura izatea.
 180. On egiten badozu, ondo egiña da, besteak ondo zein txarto erantzun.
 181. Artatxoriak dagozala-eta, ezer erein barik lotuko zara? Eta zuk egiña batzuk txartzat artuko dabela eta, al dozun on guztia egin бага geratu?
 182. Eun esku adimen barik baiño, adimen bat esku bakarragaz oba da.
 183. Abere asko gizakume batzuk baiño zentzundunago dirala argiro dakusgu.
 184. Edertasuna edozein landatan aurkitzen dan bedarra ez da, onoimena eta garbitasuna bez edozelako lagun artean.
 185. Nogaz zabiltzan esaidazu, eta zelakoa zarean esango deusut.
 186. Gaiztoagaz larregi ez ibilli, onbidetuko dozulakooan; gai-xoa osasuna baiño ariñago erantsi oi da.
 187. Gizon izatea, gitxi da; kristau izatea, askotxo da; santu izatea, dana da.
 188. Jan bear da bizitzeko, eta ez bizi jateko.

189. Ao itxian ez da sartzen eulia, eta aldi guztietan ez da eder egia.
190. Itsasoak, iturri eta ibaiak iruntsi.
191. Ardi txikia beti bildots.
192. Ezkondu baiño etxea lenago.

EGI BIRIBILLAK

3 (1933, 27. zk.) 85

193. Gizonak geienean, diran baiño andiagoak agertu nai dabe.
194. Zu gora jasoten asi danak, zugandik zerbait uste dau.
195. Egi bat bakarra dakiana, milla guzur dakizana baiño jakintsuago da.
196. Ur epelak andituak beeratzen ditu: itz bigunak asarrerik biziena gozatu.
197. Griña bako gizonik eta arantza bako lurrik, nekez aurkituko dozu.
198. Zarra, iñausten danean, zapuztu egiten da; gazteak indar barria artzen dau.
199. Zarrak beti dauko zer erantzun; gazteak beti zer ikasi.
200. Biarko egunaren jabe iñor ez da.
201. Adimen gitxiko gizonen lana da besteak ezagutzen ibiltea, norbere buruaz aztuta.
202. Jakintsua norberarentzako naikoa da, eta kristau ona jakintsua da.
203. Geu ezagutzen gareanean, geugandik urrindu eta Jaungoikoagana urreratzen gara.
204. Gizonak, beste batzuk azpiratuaz, norbera azpiratu ez badau, gauza gutxi egin dau.
205. Entzuten jakitea, ikasten jakitea.

206. Urte edurtsua, urte garitsua.
 207. Txakur argala, ardi utsa.

EGI BIRIBILLAK

3 (1933, 28. zk.) 113

208. Gizaseme guztiak oindiño Adanen antza daroe, eta emakume guztiak Ebarena.
209. Egiak adimena menperatuten (jopu egin) dau, baiña egiaren jopu dana biotzaren agintari da.
210. Biotza, berez, ona da: adimen bidekatuak gaizto biurtzen dau.
211. Biotz bako gizona eta txirrinka bako gurdia, ezetako ez dira.
212. Zeozer egin bearra badozu albait ariñen asi zaitez beiñik bein.
213. Irakurriaz jatortzun guztia ez egizu begiratu, ikusten dozun guztia ez gura izan, eta al dozun guztia ez erosi.
214. Besteetan oker batzuk oartu badozuz ez egizuz mazizatu edo salatu, zeuk badozuz ala ez, aztertu eta kentzeko alegindu zaitez.
215. Barruko bakea biotz garbiaren lasaitasunean pozez egurasten da.
216. Euren eritxitik urten nai ez daben setatsuak (terkoak), egiari baiño euren buruari ondi edo aldare ohea jarten deutse.
217. Geuretik bagoaz beste erri batera, an be txakurrak ortozik dira.
218. Ume, txikitatik egizu lan, gero nai badozu ondo jan.
219. Osasun billa ibiltea baiño, galtzen ez iztea askoz erreza-go eta ohea da.

220. Guzurrak buztana labur.
221. dagoanean bonbon, ez dagoanean egon.

EGI BIRIBILLAK

3 (1933, 29. zk.) 145

222. Zerbait egin barik ixten badozu, ezer ez dozula egin uste egizu.
223. Kerixa azurrak iruntsi oi dituanak, okaran azurrak erreza-go iruntsiko dauz. Atsekabeak olantxe dira.
224. Gorputzeko izurri edo legana daukanagandik iesi egiten bagara, ekandu dongak dituanagandik geiago aldendu bear gara.
225. Jokalariak batzandu zaralako, noski jokalaria egin zara eta biraotiaz biraoti. Nogaz zabiltzan begira ondo.
226. Gaizkiesaleen miña, ziraunen eztena baiño kaltegiñagoa da.
227. Iñogaitik gaizki ez egizu esan, guztiok lupetzezkoak gara-eta. Lupetzezkoa izanik, garbi-garbi dagoana zein da?
228. Eriotza, minge (mutua) izan arren, asko diñoana da. Kristau onak diranentzat, bizitzaren asipena da.
229. Entzun dozun guztia ez egizu siñistu, dakizun guztia ez esan, eta daukozun guztia ez emon.
230. Burrukaldi eta gudaketa (gerra) guztiak azkenduko litza-kez, bakoitzak garaiz pizkatxo bat amoregin (zedidu) ez-keru.
231. Gauza bat merke euki nai badozu, garesti (karu) erosi egizu.
232. Itz egin gabe oldozten (pentzau) egotea, oldoztu gabe itz egitea baiño oba da.
233. Intxaurra daukanak jateko, arr'ia euko dau austeko.
234. Gordetan dakianak, aurkituten dau.

235. Lapiko txikiak, laster gaiñez.
 236. Ogi gogorrari, agin zorrotza.

EGI BIRIBILLAK

3 (1933, 30. zk.) 165

237. Kañoi guztien gaiñeti, dago Jaungoikoa beti.
 238. Jainkoari emon ezker berea, zer geratuko ete da zurea?
 239. Urteak joakuz ieska, desengaiñuak (galen) geratu millaka.
 240. Onaren kurutzeak ariñak dira eta zeruan sartzeko; gaiztoarenak barriz samiñak eta bera galtzeko.
 241. Plazan egiten dan ezkontzak, etxerutzen ditu gosea eta dantzak.
 242. Liburu ona, beti zeu maite zaituan adiskide bat da.
 243. Liburu eta izparringi txarra, zeuk igarri barik egunero us-teltzen zaituan eden zitala da.
 244. Gizaseme zuzenak erria goratuko dabe, dongiak dana ondatu.
 245. Guzurtia, alperra eta jokalaria, etxeari eusteko age okerrak.
 246. Gaiztoak direanak, onak be gaiztotuten atseginduten dira.
 247. Zurtzat dagozan emakume asko, gizon zoroen antzeko dira.
 248. Gizonen bizitzak daroaz udabarriko lorak, udako eka-txak, udazkeneko euritzak, neguko edurtzak.
 249. Atsekabeak arinka eltzen jakuz, atea geuk zabaltzen deute-gulako.
 250. Gaiztoak, osagillerik gura ez daben gaixo batzuk dira.
 251. Jakituri guztien artean merkeena, dana ukatutea da.

EGI BIRIBILLAK

3 (1933, 31. zk.) 207

252. Udabarrian ereiten ez dauanak, udazkenean ezin batu. Gaztearoan ikasten ez badozu, zartzaroan ezer ez dozu jakingo.
253. Gizonak lurraren ganean bakerik aurkitzen ez badau, lurra jarri bearko da gizonaren ganean.
254. Jainko bako gizonentzat ona eta zuzena, eurak olantxe deritxoena da. Araudi andurra. Okerra ugari izango da.
255. Besteen eritxia nai dozunean bakarrik jarraitzen badozu, zeurea be nai dabenean bakarrik entzungo dabe.
256. Lapurrak irribarretxoa egiten deutsienak, eurakaz artu-emona dabe.
257. Sur-motzak sur-luzearen aurka itz egiten dau, eta gizon zitalak zintzoaren kaltez.
258. Garbiak, jaunzaleak eta errukitsuak direanen kaltez itz egiten dozu? Geiago ez esan. Nor zarean badakigu.
259. Ikusle bako zoriona, zorion erdia baiño ez da; onoimen bako zoriona, barriz, zoriona ez da.
260. Besteak baiño geiago izan gura badozu, besteak baiño geiago egin bearko dozu.
261. Lan bako txerrena (deabrua), barritsu (zirri) sartu zan.
262. Dirua epeka emon dozu? Arerioa (etsaia) irabazi dozu.
263. Guztien etxeak, leioak apurtuta, ateak lokatuta.
264. Gizonaren gorantza, astoaren arrantza.
265. Aotik berotuten dira labea eta agurea.
266. Dakienak bildur eukiten, badaki gizon izaten.

EGI BIRIBILLAK

3 (1933, 32. zk.) 235

267. Griña dongeen askatasunean bizi danarentzako iltea arrí-gari da, onbidetik dabillena, baketsu ilten da.
268. Eriotz aldian errege askok praille (lekaide) izatea gura izan dabe; eta errege izatea praille batek be ez dau nai izan.
269. Gizaseme onak bakean bizitzeko, gorputzari ez deutso begiratzen; gaiztoak bez arimari.
270. Maitatua izatera eldu dan agintari edo nagusia, zurtasun gitxiduna ez da.
271. Artu dozun mesedea, lotu zaituan estuntza edo katea da; urkatuko zaituanagandik ez artu ba.
272. Dirua artu dauanak, irribarretxoa egin ez badau, biotz nasaia dauko.
273. Gaíztoak Jaungoikoa urrin egotea nai leuke, gogo garbidunak bere ondoan euki nai dau.
274. Indartsua eta maltzurra diranen artean, ibilli eta ibilli, maltzurra goian geratuko da.
275. Arrokeriak, zordun dala, iñoiz ez dau autortuko.
276. Norbaiten aintza, izena eroatean ez dago, onoimentsua izatean baiño.
277. Nekaldiak urtezko erlojua daroe, atsegiñak minutuzkoa.
278. Ergelari (zoroari) gaizki egin dauala oartxen badeutsozu, gorrotauko zaitu; jakituna danak maite izango zaitu.
279. Kristau ona ez dan gízona, ezin izan auzoko ona.
280. Bakotxaren zoriona, norberak deritxona.
281. Biotza betetako naikoa, bakarrik da Jaungoikoa.

EGI BIRIBILAK

3 (1933, 33. zk.) 281

282. Ergelak (zentzun bakoak) direala esateagaitik, batzuk ixilik geratzen dira, egiz ergelak direalako, beste batzuk, deunak direalako
283. Lizuna (zantarra) urdearen (txarri) antzeko da; inartziduna (bekaizti), sugearen antzekoa; barritsua, txoriburu bat.
284. Zoroa dala ezagutu dauan zoroa, zentzuna izateko bidean dago.
285. Zoritxarrak, bestela inoiz ikusten ez diran gauza asko agertzen deuskuz.
286. Egun on guztiak, onak dira; baiña azkenengoa, ona bada, betiraunkorra da.
287. Jainkoak inor ez dau zaurituten, zauriarentzako osakia eskeini barik.
288. Obendien irribarrea, jauregi loi-zar baten aurre polita lez da.
289. Agintari ona izatea gaitz da, bere aldez diranei ogi asko emon bear deuselako.
290. Jainkoak ate guztiak batera ez dauz ixten. Bat itxi badeutsu, beste ate bat billatu.
291. Jainko barik aurkitutea gura badozu, beste gaudi edo mundu barri bat billatu bearko dozu.
292. Jainkoak emon leikizun zigorkadarik andiena, biotza gaiztakerian gogortutea da.
293. Adiskidea betiko jatzu; maitea gitxirako.
294. Oiñak baiño aurrerago begiak erabilli; eta eskuak baiño lenago adimena.
295. Etxean ikusia, umeak ikasia.

EGI BIRIBILLAK

3 (1933, 34. zk.) 301

296. Askok askatasuna nai dabe, bestiena be eurentzako gura leukielako.
297. Zorduna, arrigarria izan oi da. Zorrak, egunero astunago datoz.
298. Urkamendia, lotsagarri ez da. Urkamendira daroan gaiztakeria bai da lotsagarri.
299. Siñisgeak ezkutuki edo misteriorik ez dau siñistuten; illunpea be argi barik ezin ikusi daike.
300. Egi guztien oiñarria, Jainkoagan siñistea da. Ondope au kendu ezkeru, enparauek bera datoz.
301. Jainkoak zure naia beti beteko baleuskizu, galduta zengozan.
302. Zoriona, sarritan arrez beterik dagoan leza illuna da.
303. Egia, ezkontzea iñoiz austen ez dauan andra zintzoa da; guzurak, edozein ordutan austen daki.
304. Abereak baiño geiago ez gareala diñonari, lau oiñekoei lez itz egin bear jako.
305. Ezkontza, zorientzua ez danean, zoritxar askoren iturria da.
306. Emakumearen baiezkoak eta ezezkoak, orratz-buru baten betarte doi-doi daroe.
307. Emakumea, alde batetik baratzera eta bestetik amildegira daroan bidea da. Ondo igaroten, gitxik dakie.
308. Astiro astiro urrun joan leiteke.
309. Asko badaukok, asko bearko dok.

EGI BIRIBILLAK

3 (1933, 35. zk.) 348

310. Adiskideari onurik (konsejo) atsegingarriena ez egiozu emon, ongariena bai beti.

311. Dongei parkatu deutsonak, zuzenak zigortuten dauz.
312. Azaletik zarata asko dabillenean, biotza itun geratzen da.
313. Ixilík egon zaitez, bestela ixiltasuna baiño ohea dana esaizu.
314. Asko daukana oker badabil, ezer ez eukitea oba litxakio.
315. Gaizki egiñaren damuak, gitxitan itxiko dauz gauzak lenago egozan tokian.
316. Aldia (denborea) arinka doan bultzia (trena) da; geltoki bat bakarrik dauko, nekea.
317. Ezkontza-buztarria biren artean polito eroan leikena da; baiña iruren artean ez.
318. Emakume ezaiña biotzaren kaltez dabil; ederra buruaren kaltez.
319. Etxekoandra zurra, errenta erdia beste beti da.
320. Ikertau zaituan emakumeak lenengoz agur dirautsunean, esan dauan beste itz ondino esateko dago.
321. Biotz larregi daukenakaz kontuz ibilli zaitez; eta biotz bakoakaz kontuz eta erdi.
322. Osagillea biguna danean, zauriak luzaroago irauten dabe.
323. Lenengo laurlekoa aurreratu dozun egunean, aberastuteko bidetik sartu zara.
324. Zalpurdiz (burdiz) gelditu barik jarraitutea, berebillez (auto) arinka joan eta biderdian lotu bearra baiño, obeto dozu.

EGI BIRIBILLAK

3 (1933, 36. zk.) 373

325. Etxeko sua amatau, etxeko autsak bear dau.
326. Lagun bako biziera, eguzki bako zerua.
327. Lagun gaiztoak izatea, bakarrik egotea baiño kaltegarriago.

328. Beti ondo egon nai dauanak, lo asko galduko dau.
329. Osasuna gauza ona da, eta bakea lagun badau, onena.
330. Erdi gosez osasuna iraunkorrago dogu; larregi aseturik, ariñago lurpera.
331. Lanean nekatu danaren loa, amets gitxi eta gozoa; alpe-
rraren loa, atsegin bakoa.
332. Bedar txarra edonon azten da; gizonak diran lurean, be-
rez gaiztakeria.
333. Arerioen gorrotoa ala adiskideen bekaitza (inbidia) gurago?
334. Anaia, izadiak emon deuskun adiskidea dogu; adiskidea,
gizadiak damoskun anaia.
335. Ekatxa danean itsasora ez bazoaz; asarre zareala, itz egi-
ten dozu?
336. Asarre aldian idazkia (karta) egin badozu, urrengo egu-
nera arte ez egizu bialdu.
337. Griña txarrak lenengotan ostatua eskatuko deusue, ge-
roago zeure agintari izateko.
338. Jaungoikoak gitxi eskatuten deusku, ordez berak asko
emoteko.
339. Lurra bigunago, arra barrurago.

EGI BIRIBILLAK

4 (1934, 37. zk.) 26

340. Ikusmena galtzea baiño adimena galtzea negargarriago.
341. Burdi hutsak aldats beran beleak baiño zarata geiago
ateraten dau.
342. Buruariñak be barruau pisu gitxi eta ezpanetan zarata asko.
343. Asko dakianak, diñoana ondo goznartuta esaten dau; gi-
txi dakienak, itz egiten aurrenengo eta guztien ganetik
izan nai dabe.

344. Geroa, alperraren leloa.
345. Non illundu, an ostatu.
346. Asiera onak, asko esan gura dau.
347. Gogo (arima) txoria lez da, gora igonago eta zoriontsuago.
348. Zeozertxo jakin gura badozu, ikasi egizu. Asko jakiteko, entzun. Jakitun andia izateko irakatsi.
349. Biotzeko zauriak osatuteko bedarrik onena, maitasuneko irribarretxo da.
350. Besteren zorionean poztutea, egiz maite izatea.
351. Bein saldu zaituan adiskideagaz, gorrotorik ez, baiña barriro adiskide bez.
352. Zor deuskuena zeatz idazten guztiok dakigu; geuk zor doguna, olan ez.
353. Entzun dozun guztia, ez siñistu; dakizun dana, ez esan.
354. Sasiak be, begiak eta belarriak ditu.

EGI BIRIBILLAK

4 (1934, 38. zk.) 37

355. Agindua beti luzatu baiño, garbiro ukatu, zintzoago da.
356. Egia, oin biren ganean dabil; guzurra, anka oker bategaz.
357. Arrotu dana, beera etorriko da; apal-zintzoa, gora.
358. Arrokeriz beterik dagoan biotzean, Jainkoa ezin bizi.
359. Geuk nai doguna onetsi, eta besterena ezetsi? Aor bai arrokeria ugari.
360. Txikia edo andia, bakotzak bere surra.
361. Zoroak ordubetean geiago itaunduko deutsu, zentzundunak urtebetean baiño.
362. Zurtasuna eta jakituria, gauza barriak esatea ez da, gauza zarrak ondo orraztutea baiño.

363. Kutxan dozun diruagaz ez arrotu, emon dozun ukarraz bai poztu.
364. Eralgiten dozun baiño laurleko bat geiago egunero aurreratuten badozu, aberats andia zareala siñistu egizu.
365. Burrukaldi guztiak nondik datoz? Ez daukenak, daukene-na eskuratu gura.
366. Ludian zorion-bidea: osasuna, bakea eta dirua.
367. Zeru-bidea: Jaungoikoa eta urko-laguna (geidea) zintzorro maite izan.
368. Gizon gaizto askogaz, gizon on bat ezetz egin.
369. Basati kaltegarriak, mendi-basoetan bizi diranak baiño urietan bizi diranak jakuz.

EGI BIRIBILLAK

4 (1934, 39. zk.) 79

370. Luzaro bizitzeko biderik onena: jan gitxi eta lan gitxi.
371. Egur busti erreak, bero gitxi eta ke asko.
372. Bizialdia lanerako; illobia lo egiteko.
373. Bakoitzak bere ate-aurrea garbitu ezkerro, kale guztia garbi.
374. Len alan, orain olan; gero, ez dakigu zelan.
375. Begia oiña baiño aurrerago erabili, adimena egikuna baiño lenago.
376. Jauregietan danak menpeko, txadonetan (elizetan) guztiok anai.
377. Zuk dana dakizula diñozu? Eskuko bost atzamarrak, bar-diñak zergaitik ez diran esaizu.
378. Guztia dakiana, nor? Goikoa bakarrik.
379. Batak besteagandik ikasteak, ez gaitu lotsatu bear.

380. Zuzenbidez ibilteko, iru maitasun oneik zaindu egizuz: zeu, zeure sendia, eta zeure aberria.
381. Maite dogunak edozer eginda be, ontzat daukogu. Baiña begiak lausotu ala biotzak atzipetu?
382. Gaizki egin deusunari beste kalte bategaz erantzun ez-kero, bape onura barik, kalte bi dagoz.
383. Apal-arpegiz jantzi, eta onbidea errezago baietz irabazi.
384. Zeure lagunei beti on egin, adiskideago izan dagizuzan; zeure arerioei (etsaiei) be on egin, zeure lagun izan daitezana.

EGI BIRIBILLAK

4 (1934, 40. zk.) 112

385. Zure etxeko gauzak zaintzen badozuz, egurra eta ogia zenbaten erosten diran, jakingo dozu.
386. Semeak azi egizuz, eta zeure aitari zor deutozuna ikasiko dozu.
387. Gaur egiten dozun ona, biarko zoriona.
388. Oitura dala-eta, ondo ete dagoan begiratu barik, ezer ez egin.
389. Barriketa asko? Gauza on gitxi.
390. Mendiak mendiaren bearririk ez, gizonak gizonarena bai.
391. Zeure etxean, zeu nagusi; auzoan, bertakoari utzi.
392. Mutil beargin eta baketsua, etxeari custeko age zintzoa.
393. Otsein zintzoa badozu, ondo saritu egizu. Zintzoagoa non aurkitu?
394. Lurrak lan barik emongo baleusku, jakitun gitxi agertuko litzake.
395. Dirua egiten ala gordetzen errezago?
396. Gaztaroan alperra izan bazara, zartzaroan lan egin bearko dozu.

397. Zar antzera ibilli, eta beti gazte iraungo dozu.
 398. Buruariña, itz egiten asi lenengo, amaitu azkenengo.
 399. Jokalari onak irabazi joko; kristau onak, zerua.

EGI BIRIBILAK

4 (1934, 41. zk.) 137

400. Beartsuei gitxien laguntzen deutesnak, zeintzuk dira? Dirudun zikoitzak.
 401. Txiroak aldia igarotzen dabe dirua xautu edo gastatzen; aberatsak dirua igarotzen dabe, aldia galtzen.
 402. Gizonik geienak onbidea (birtutea), zorakeria dala uste dabe; eta txarbidea, zurtasuna.
 403. Onbidean gaitzen egiten jakuna, zurra dana ergeltzat (zoro) agertutea da.
 404. Iñoren etxean adiskidetasuna luzaro nai badozu, eurek bota baiño lenago urteizu.
 405. Miragarri izan baiño, maitagarri izatea obeto jatzu.
 406. Oillarrak eta oilloak etxean abestuten badabe, zoritxarreko etxea dala diño. Zergaitik ete da?
 407. Beartsuen arazoa, egunez lan eta gabaz lo; aberats askorena, egunez lo eta gabaz joko.
 408. Zarrak zer esana, beti; gazteak be bai, zer ikasi.
 409. Txori bakotxari eder, bere kabia.
 410. Naigabea etxeratu jatzu? Alperrik da-eta, ez asarratu.
 411. Asarreak onura gitxi; eroapenak, kalterik ezin itxi.
 412. Aoan beztuna daroanentzako, guztia mingotsa.
 413. Ondo oldoztuten (pentsetan) irakasten deutsun idazki edo liburua, ona jatzu; ondo bizitzen irakasten deutsuna on-ona.

EGI BIRIBILLAK

4 (1934, 42. zk.) 185

414. Lotsea bein galdu dauanak, bariro nekez aurkitzen dau.
415. Gizartea osabidetu gura zenduke? Malladia garbitzen, goitik bera asten gara. Ulertu dozu?
416. Zoritxarra askotan uste ebenen etxera ez doa, eta uste ez ebenen etxera bai.
417. Ez jakitea, gauza txarra bada; gauzak oker jakitea, txarra-go da.
418. Auntza zainduten iru mutiko badira, irurak jolastu bai, baiña auntza batek be zaindu ez.
419. Neskatilla, ederra eta aberatsa izan arren, lotsa onekoa eta gogo garbiduna ez bada, etxerako ona ez da.
420. Gure atsegin guztiak, obenak pozoitu egiten deuskuz, errugetasunak gozotu eta adiskidetasunak ugaritu.
421. Sumiña edo asarrea ate batetik sartu bajatzu, zentzuna beste batetik urten.
422. Sumiña neurrian ez badaukozu, bere jopu egingo zaitu.
423. Sumiñak, burua zoratu eta etxe-bakea ondatu.
424. Sumiñak, gogo bakea eta gorputz-osasuna galtzen daki.
425. Sumiña, aolkulari itsua eta ankerra dozu.
426. Sumiña erein badozu, zertaz damutu etorriko jatzu.
427. Asko janda osakai billa baiño, gitxi janda botikako barik obeto ibilliko zara.
428. Iturri onak, legorketa aldiari ezagutzen dira; adiskide zintzoak, zoritxarrean.

EGI BIRIBILLAK

4 (1934, 43. zk.) 217

429. Egia, betiraunkorra eta garaillea dogu. Guzurra, aldakorra eta ilkorra.

430. Izen ona ostuten deutsuna, aberatsago ez da egiten, baiña zu txirotu egiten zaitu.
431. Norbaiti gazte dagola esatea, gaztea ez dala esatea da.
432. Osasunagaitik bustialdi otz-otza be artzen badozu, ari-me-a garbitzeko autorkuntza on bat ez dozu egingo?
433. Urritasuna (ekonomia), txiroen aberastasuna eta aberatsen jakieturia da.
434. Amar aldiz neurtu, bein moztu.
435. Ariñegi eskuratu dozun dirua, garbia ete da?
436. Iñori esaten ez jakona, ondoen gordetzen da.
437. Guk dakiguna besteei irakasten, zor bat ordaindu baiño ez dogu egiten.
438. Dakigun guztia beti ez dogu esan bear, baiña beti ixildu bez.
439. Erosiaz ikasten dogu saltzen, eta salduaz erosten.
440. Jakituria siñesmenaren aurka doala uste badozu, jakituria zer dan ez dakizu.
441. Aberatsak larregi soiñeratuten dabenagaz, txiro (pobre) guztiak jantzi leitekez.
442. Ziraunen eztenkada baiño, seme baten esker txarra min-garriago da.
443. Jaunak ardaoa emon deusku, biotza arintzeko, baiña ez mozkortzeko.

EGI BIRIBILLAK

4 (1934, 44. zk.) 247

444. Beste bateri iñoiz eskeiñi bear ez jakozan iru gauza: Emaztea, eskopetea eta zaldia.
445. Garbi dagoanak, bildurrik ez.
446. Gu ilda gero be, zorroak bolura.

447. Burubide astunei txapela, indarrak baiño egokiago ekita-
sunak jarten deutse.
448. Odola jatorriz jatorku, onoimena geuk geureganduten
dogu. Odolez ezin leikena, onoimenak irabazten dau.
449. Zugatz txikiari orria edozein umek kendu.
450. Loreak arantza, eta gozoak be mingotsa.
451. Ez da gatxik, aldiak ez daroanik.
452. Etxean alperra eta ollarra, urtebetean asko da.
453. Atsekabeak baiño, edozein atsegiñek beaztun geiago da-
roa.
454. On antza daroan txarra, osatzen gaitzena izan oi da.
455. Aberats zikoitza, txiro errukitsua baiño ezeukiago da.
456. Gizon jakintsua, nekez arritzen da; ezjakiña, edozergaitik.
457. Etxerik andienak, onenak beti ez dira; bizitzarik onena
be bizitzarik luzeena ez da, egikun deunetan aberatsena
dana bai.
458. Garaiz eldutea, asko da, guztia da. Berandu eldutea, ez
eldutea lez da.

EGI BIRIBILLAK

4 (1934, 45. zk.) 261

459. Zer jazoko dan jakiteko, zer jazo dan gomutatu.
460. Onbidean lenengo mailla, txarrik ez egitea.
461. Geugaz latzak eta besteakaz errukiorrak izatea, onbide
garbia.
462. Gorago igoteko egorik bizkorrena, apaltasuna dogu. Txo-
riak be gora egaztuteko, lenengo makurtu egiten dira.
463. Aizea garbitzeko, onena ekaitza.

464. Uts egiten dauanak, beretzat bakarrik gitxitan egingo dau.
465. Ezer ez dakian ergela ala guztia dakian gaiztoa ete jatzu lagun obea?
466. Guztiak ontzat euki arren, guztiak txarrak balira lez zaindu zaitez.
467. Akats bako adiskide billa bazabiz, iñoiz ez dozu aurkituko.
468. Adiskide onena zein dan, zoritxar aldian ezagutzen dogu.
469. Eriotzaren bildur, gaizkiñak bakarrik izan bear dau. Giza-seme ona, obenak bakarrik ikaritzen dau.
470. Aoan beaztuna badogu, guztia mingots biurtuko jaku.
471. Garia egun berean erein eta jaso ezin leitekela, nekazariak ondo daki; kaletar askok au ez dakie.
472. Egia, egia dogu, irartu barik ibilli arren; guzurra barriz beti guzurra, irartuta ibilli arren be.
473. Gurenda (garaipena) jadesteko, ereti ona itxaron bear da.

EGI BIRIBILLAK

4 (1934, 46. zk.) 293

474. Geurekoikeria, egiaren etsairik kaltegarriena.
475. Andigureari atea edegi badeutsazu, bakeari itxi deutsozu.
476. Batak besteagaitik esaten daben guztia bagenki, adiskide gitxi.
477. Urriñera arrigarri jakuzan gauza asko, urrean iguingarri jakuz.
478. Adiskideagaz nagoanean, bakarrik ez naz eta bi ez gara.
479. Jainkoa bai, jakintsua! Ama bakotxari semerik maiteena damotso.
480. Ezkontza, biren artean egiten dan gurutz-bidea da.

481. Ezkontza, zoritsua izango da, laguna norbera baiño zoriontsuago izatea gura danean.
482. Ule arroen azpian zentzun bako txepetx-buru asko dira, eta janzki apaiñaren barruan biotz lizunak ugari.
483. Besteakaz baten asarratu baiño, zeure buruaz bost bider asarratu oba dozu.
484. Onoimen bako dotorekeria, sitsak laster jaten dau.
485. Idazti edo liburu itxiaz, jakintsurik ez.
486. Gizonak ludian dauan zorionik andiena, ondo egitea da.
487. Onera gaizkoakaz be bai, txarrera onakaz bez.
488. Itxaropena, azkenengo galtzen da.

EGI BIRIBILLAK

4 (1934, 47-48. zk.) 325

489. Gose danari, edozein ogi gozo.
490. Alperreko gauzea, gitxi ordaindu bada be, beti garestia da.
491. Zeuri begiko ez jatzuna, ez egizu zigortu, gaizki egiña bai.
492. Ustegetasuna (deskonfiantza) asi dan orduan, adiskidetasuna iltamuan.
493. Egiaz beti dabillanak, guztia siñistuko deutsu.
494. Lagunak etsai biurtutea, baldartasuna da; etsaiak adiskide egitea, zurtasun andia.
495. Etsai agiria, etsairik okerrena ez da.
496. Emakume buru onekoa, etxearen osasuna; buru ariñekoa, etxearen ondamena.
497. Gizonaren gorputza, buruaren antzera, erabilli ezik, erdoildu egiten da.
498. Egunetik egunera, eriotzatik urrago gara.

499. Ondo en beti, geure buruagaz konpontzen gara.
 500. Gura badozu aberastu, lanari ekin eta gitxi jolastu.
 501. Atzipetutera (engaiñatu) etorri jatzuna zeuk atzipetutea, atsegiñik andienetakoa da.
 502. Zauriak oztuago, egiten dira miñago.
 503. Itz zoroai, belarri gorrak.

EGI BIRIBILLAK

5 (1935, 49-50. zk.) 20

504. Egizu beti on, ez jakin arren non.
 505. Esaten dauanak nai dauana, entzun bear nai ez leukena.
 506. Sua ez dau suak itzaltzen, asarrea be asarreak ez.
 507. Esanak gugan, egiñak Jainkoagan.
 508. Osasuna eta izen ona, nekez irabazi eta errez galdu.
 509. Dirua beti izango dozu, lenengo daukozuna iñoiz xautu edo gastatzen ez badozu.
 510. Dirurik gozoena, beste batek itxia; ederrena, norberak irabazia.
 511. Ezkontzeko urriñera doana, engaiñauta edo engaiñatzera doa.
 512. Gorago igon nai dabenak, geien baten duin ez diranak izan oi dira.
 513. Zer zarean ondo jakin gura badozu, arerioak diñoana be entzun bear dozu.
 514. Guztia zalantzan (ezbaian) ipinten dauana, arro utsa dozu; zalantzan ezer ipinten ez duana, ergela edo zoroa.
 515. Jakintsuen artean dabillena, jakintsu errez biurtzen da.
 516. Aukeraren maukera, atzenaren okerra.
 517. Erriz aldatzea, zarrentzat eriotzea.

EGI BIRIBILLAK

5 (1035, 51-52. zk.) 51

518. Zikoitz batentzako zoritxarrik andiena, beste zikoitz bat gaz aurkitzea da.
519. Dakizuna esan, diñozuna egin, agindua bete, zareana agertu. Zintzotasuna auxe da.
520. Negualdian begiratu dan emakumea, udaran izan leitekete etxekoandra.
521. Alperkeriaren ondorenak, gosea eta oitura txarrak.
522. Adiskide batzuk *maite* doguz; bestetzuk *jasan*, eta bestetzuk *gorroto*. Lenengoak gitxi dira; bigarrenak geitxoago; irugarrenak, eunka.
523. Andiustea gaitz-ustela balitz, egunero edozenbat eriotza.
524. Jakingeak, guztia dakiala uste dau; jakitunak, ezer ez dakiala.
525. Gaiztoak goersten dituana, gaiztoa dala siñistu geinke.
526. Il zorian dagoan bat zerubidean jartea, ludiko urre guztia eukitea baiño geiago da.
527. Onik bape ez egitea, okerrik naikoa da.
528. Erri bakotxak bere legea, eta etxe bakotxera bere bidea.
529. Atzerritarrak, eskua latz.
530. Atzerri, otso-erri.
531. Zorion-aldian, lagun asko; zoritxarrean, bakarrik egon bearko.
532. Onoimena, zintzoen atsegiña; zoroen poza, zikiña.

EGI BIRIBILLAK

5 (1035, 53. zk.) 87

533. Bakotxaren zoriona, norberak deritxona.
534. Urriñeko intxaurrak amalau, bertara orduko lau.

535. Oker guztien zuzengarri, eroapena artu sarri.
 536. Barauak asko sendatu, jan-edan larregiak asko ondatu.
 537. Ao-utsa baiño, obe da zai-utsa.
 538. Beretzako bakarrik, iñor ez dago eginda.
 539. Ugazaba asko diran etxean, bateri be ez jako esana egiten.
 540. Zeu orren txikia izanik, goregi igon nai badozu, galduko zara.
 541. Jaungoikoak iturritik ur gardena damosku, baiña ontziaz billa geu joatea nai dau.
 542. Uria Jainkoak zaintzen ez badau, errizaiñak alperreko ibilte asko.
 543. Lapurrak, gorengo aginpidera eldu diranean, onenak eurak dirala, arro-arro iragarriko deusue.
 544. Ludian orrenbeste guzurti dirala, ikusi barik, ez neban siñistuko.
 545. Siñistebako agintariak, lotsabakoak dirala, autortu geinke.
 546. Soiñekoa astero garbitu nai dozu, eta gogoia urtero?
 547. Gaizki autortzen danak, izango ditu biotz-eztenak.

EGI BIRIBILLAK

5 (1035, 54. zk.) 118

548. Zorion billa guztiok ibilli, aurkitzen dabenak, gitxi-gitxi.
 549. Daukana baiño geiago ez nai izatea, zoriona da.
 550. Al dana baiño geiago ez billatzea, zurtasuna.
 551. Dana bakarrik ikustea, jakituri andia.
 552. Ezpatak ugertuta eta atxurrak garbi? errian bakea bizi.
 553. Osagilleak lan gitxi eta ogigiñak asko? etxean osasuna dago.
 554. Zor bakotxa, txikia izan arren, oñestun luze baten eraztuna dozu.

555. Illa bi baiño ariñago etxetik joango baziña gurago dabe-nak, gitxi ez dira izango.
556. Gizonen legeak ugarituago, egizko askatasuna lotuago.
557. Gonadunak prakadunen arazoetan sartzen jakozan erria, zoriontsua nekez izango da.
558. Gizon andien ezaugarri, barrea eta atsegiña ez dira, ne-garra eta nekaldia bai.
559. Jaungoikoak zer emon asko dauko, baiña geu eske joa-tea nai dau.
560. Jainkoa ona ez dala, ez egizu iñoiz esan, bere menpean naitaez egon bear dozu-eta.
561. Siñesmen barik, gauza guztiak oker. Siñesgetasunak zi-gorra beragan daroa.
562. Gaurko atsegiñak biar etorri leitekezanei kalterik ez egi-teko eran bizi zaitez, eta ez zara damutuko.

EGI BIRIBILLAK

5 (1935, 55. zk.) 144

563. Urte askotan bizi danak, asko ikusi, asko entzun eta as-ko egin.
564. Nondik zatozan eta nora zoazan, gogoan erabilli ezkeru, beti zuzen ibilliko zara.
565. Dakianak gora begiratzen, jakingo dau gizon izaten.
566. Betitasuna, zoriontsua eta zorigaiztokoa izan leitekela, ez aztu.
567. Agurtza aztu eta biraoak ikasi? Goikoaren legetik ezin bizi.
568. Aita-semeak ardanetxean, ama-alabak zineman; sendi aretan izango dira praka zardunak eskean.
569. Artzekoak kobratu eta zorrak ukatu, berea berarentzat eta iñorena erdibana. Ori eztok bide zuzena.

570. Buldarik ez artu eta joko-kartak erosi? Zoritxarra etxera ekarri.
571. Lenengo andrea da emazte, bigarrena senide, irugarrenna kalte.
572. Etxea ondo zaintzeko emaztea gura badozu, altzoan txakurra eta aurpegian autsa maite dituana ez artu.
573. Oitura gaiztoa, berandu aztua.
574. Zarren umea, ariñago umezutz.
575. Goseak, jolas gitxi.
576. Askotan jan bear al doguna, eta ez nai doguna.
577. Ordu baten ezin dana, bitan egiten da.

EGI BIRIBILLAK

5 (1935, 56. zk.) 177

578. Iraupenak, indarrak baiño geiago lortzen dau.
579. Zikoitzak, gauza onik egiteko, txindia maiteegi dau.
580. Diruak edozer lortzen dauala, diñozu?... diruagaitik zeuk edozer egingo zeunkela adierazoten dozu.
581. Sendia ondo azteko, ilteko baiño be kemen geiago bear da.
582. Umearen ikasia, etxean ikusia.
583. Esanak geugan, egiñak Jaungoikoagan.
584. Morroiaren lau esku baiño, ugazabaren begi bi geiago.
585. Aginpide goratuetan, andia andiago egiten da, txikia txikiago.
586. Besteren zorionak poztuten ez dauana, zorionsua ez da izango.
587. Gizasemeok, guztiok zintzoak edo guztiok guzurtiak ba-giña, maltzur koipetsu gitxiago izango litzake.
588. Illargia an goian dago, izarrak gorago, Jainkoa gorengo.

- 589. Tximista dan tokian, trumoia; asarre ondoren, makilla.
- 590. Ekin eta ekin, naikoa irabazi ezin.
- 591. Igandean eguraldi ona zein txarra, andik sei egunera bari-rikua.
- 592. Mingaiña zaintzen dauanak, oben gitxi.

EGI BIRIBILLAK

5 (1935), 57. zk.) 205

- 593. Gauza asko dakizana baiño, gauz onak egiten dakiana, jakintsuago da.
- 594. Biarko zeregiñak gaurtik eralduten dakiena, zurra da.
- 595. Ondo esanik ez dau bear iñork beretzat, bai besterentzat.
- 596. Geienentzat gauza guztiak ondo dabiz, eurak ondo badabiz; gauza guztiak oker, eurak ondo ez badabiz.
- 597. Ezpanak itxi eta ixilik egon ezkeru, zoroak be zintzo antza.
- 598. Onak maite ez dituana, adiskidetzat ez artu.
- 599. Gauza bakotxa bere tokian, arazo bakotxa bere garaian.
- 600. Nagiaren sakelak, bi zulo.
- 601. Eguzkia gelan, eta ondiño ogean? Alper usaiña baietz izan.
- 602. Uri gaiztoan, auziak ugari; erri onean bakea nagusi.
- 603. Ardi galdua, errez ez da aurkitua.
- 604. Zoriona, guraria beteta baiño, eginbearra laztanduta, obeto lortzen da.
- 605. Jokoa ez da gari-errota, oba da bildotsa parrillan erreta.
- 606. Egiak beti bekokia garbi; guzurrak barriz atzea larri.
- 607. Aldi onari bular, ekaitzari gibel.

EGI BIRIBILLAK

5 (1935, 58. zk.) 257

608. Trumoi ondoren sarri, zaparrada etorri.
609. Burdiña jo bear, bero dagoanean.
610. Edur urte, gari urte; lora urte, ezti urte.
611. Ardiak beeka egonik, ezin jan bedarrik.
612. Barriketan jardunik, noiz dozu gauza onik?
613. Seme zuzen esanekoa, etxearen orma sendoa.
614. Seme biurri alperra, zugatz ustel eta okerra.
615. Aurrak ez badu negarrik, ez dau edango titirik.
616. Artzaillea ala emoillea arinago aspertu? Aoneri erantzuteko, burua ez nekatu.
617. Iñor salatu baiño len, aren antzeko ete zarean, oldoztu.
618. Zintzo-zintzoak al izateko, zeu eta neu zuzenak izatea bear da.
619. Zugatz bakotxak, bere itzala (geriza).
620. Egi guztiak, beti ez dira esatekoak.
621. Agintari ona izan nai badozu, guztia entzun eta sarri gorra izan, guztia ikusi eta itsua egin.
622. Zure aurka (kaltez) diñoen guztia, beti entzun egizu; egia bada, zuzendu, guzurra dana ezetsi. Au egitea, jakituri andia.

EGI BIRIBILLAK

5 (1935, 59. zk.) 271

623. Kristau ona izateko, itzak gitxi dira. Egipenak bear.
624. Deuna izan nai dauanak, lurrera gitxi eta zerura asko begiratu.
625. Bizialdi au igeskorra, gerokoa betiraunkorra.

- 626. Udan lanari ekin badeutsozu, neguan ogia izango dozu.
- 627. Gaztarroan alperra, zartzarroan gosea eta ugerra.
- 628. Mandoak umerik ez, umearen minik ez.
- 629. Bere eritxiz dabillena, damua ondorena.
- 630. An, or eta emen, egia lenen.
- 631. Zorra mingarri, artzekoa pozgarri.
- 632. Gizonik andiena, bere buruaren jabe dana.
- 633. Gizonari egia eta lurrari intza, zerutik.
- 634. Benetan aberatsa, bere zoriaz pozik dagoana.
- 635. Maitasuna, txarra bada, gizasemeen ondapena.
- 636. Guk siñistu zein ez siñistu, Jaungoikoa Jaungoiko, zerua zero, eta gaiztokia gaiztoki.
- 637. Gaiztoak, Jainkoa urrin egotea nai leuke; zuzenak, ondoan egotea.

EGI BIRIBILLAK

5 (1935, 60. zk.) 305

- 638. Bere etxean baktotxa, ez da epaikari zuzena.
- 639. Atzoko okerra zuzendu eta biar ondo bizitzeko, gaur ondo bizi.
- 640. Aldiak gauza asko irakatsi, augaitik gertu egon beti.
- 641. Asto dana, beti zordun.
- 642. Idi zarrari, arran barri.
- 643. Olloari oloa, mandoari lastoa.
- 644. Urak dakarrena, urak daroa.
- 645. Zugatz onak, alorta (igali) ona; zugatz txarrak, alorta txarra.
- 646. Gizon zurra, buruagaz bakarrik ez da itunduten, biotzagaz be bai.

647. Etxea egiten asi baiño len, begira zegaz jaso leiteken.
648. Diruak, itxiko deutsu eriotzaldian; senide – adiskideak, il-obian; egikun onak, donokian.
649. Zeuri egitea gura dozuna, besteei egitea bide zuzena.
650. Askotan ikusi oi dira lurrean, atxurra eta kirtena alkarren urrean.
651. Zeugaz egoten badakizu, zoriona lortu dozu.
652. Donostian Donosti, gorostian gorosti.

EGI BIRIBILLAK

6 (1936, 61. zk.) 7

653. Urte barri, oitura txarrak kendu eta garbiak ekarri.
654. Urteak aurrerago, musua tximurrago eta lepoa makurrago.
655. Urteak zenbatu, bizitza beste orrenbeste laburtu.
656. Otoitz egiten dauana, zerubidean da; otoitz egiten ez dakiana, gaiztoki ganean.
657. Gaiztakeria beti gorrotatu, ondo egiñaz ez iñoiz lotsatu.
658. Itzak, aizeak uxatu; egikun onak, gogoan geratu.
659. Ez egin iñoiz bakarrean, eder ez danik kalean.
660. Ona izateko, ikasbide onak ikusi; gaiztoa izateko, dongakaz ibilli.
661. Adimen gitxiko gizasemeen arazoa, norbera ezagutu bakarrik besteak aztertutea.
662. Gure bizitza luzatzeko biderik egokiena, laburtzen ez iztea.
663. Gaztaiña eldua, aize gitxik eratsi; zarraren belauna, lurrea berez jatsi.
664. Gazteak egin leike nai dauana; zarrak, al dauana.
665. Itsuak ikusnaia, errenak ibilnaia, jakingeak jakin-naia, guztiok bizinaia.

666. Igandean edozenbat barrez, astelenean negarrez.
667. Bizialdia maite badozu, egunak alperrik ez galdu.

EGI BIRIBILLAK

6 (1936, 62. zk.) 37

668. Antzoki eta zinemara ez doazanak, zorioneko dira; sake-la beteago eta gogoia garbiago.
669. Gaurko ardaoa eta tabakorria artzen ez dabenak, zorioneko; barrua usteltzeko, eden bi urrunago.
670. Zoro-ergelak, zorioneko; zoritxarra zein dan, ezagutu ez dabelako.
671. Idazten ez dakienak, zorioneko; buruauste asko kendu uneoro.
672. Irakurten ez dakienak, zorionsuago; bosteun guzur gitxiago, jakin egunoro.
673. Begi-bakarrak, zorioneko; gaudi galdu au, zulo bakarretik ikusten dabelako.
674. Itsuek, zorionsuago; zulo batetik be ikusten ez dabelako.
675. Eskumotzak, zorioneko; txarto egiteko, esku bat gitxiago.
676. Errenak (koxoak), zorioneko; gaizki egiteko, oin bat astunago.
677. Lenago il ziranak, zorioneko; gaur negar egiten ez dabelako.
678. Geroago ilgo diranak, zorionsuago; gure lepotik, barre egingo.
679. Aurpegi eta ezpanak margotu (pintau) nai dituezan emakumeak, zorioneko; len itsusiak ziranak, orain ezaiñago.
680. Aurpegia margotzen ez dakien emakumeak, zorionsuago; Jainkoak egiña, berez ondo dago.

681. Lau irabazi eta iru bakarrik eralgiten dakienak, zorioneko; atzo baiño, gaur aberatsago.
682. Basurian bizi diranak, zorioneko; gaiztokia urrunago, donokia urrago.

EGI BIRIBILLAK

6 (1936, 63. zk.) 85

683. Iñoren buruko sitsa ikusi, eta norberaren agea ez.
684. Bere burua anditzat daukana, ez da ondo ezagutzen.
685. Ederrak dirala esatea, itsusienak be pozik entzun.
686. Gitxi esan eta gitxi siñistu, jakintsuaren burua agertu.
687. Urrunago, guzurra andiago; iraiña, kaltegarriago.
688. Biotz onekoak, gogoratu barik be, gauza onuratsuak esaten daki.
689. Maitasuna, eritasun erantsikorra da; bildur geiago izanaz, errezago kutsatu.
690. Biotzean lenengo sartu zan maitasuna, burutik azkenengo urten dauana.
691. Emazte onarentzat ondasunik ederrena, bere senarraren maitasuna.
692. Andra txikia, zeregin andia.
693. Maite dogunari, guztia siñistu eta guztia jasan.
694. Geuk egiña ontzat, besterena txartzat, ez dau egiten biotz onekoa danak.
695. Sustrai txarrak, edonon kimu barria; gizonak diran lurrean, gaiztakeria.
696. Amabi adiskide dozuzala uste badozu, egizkoa, bat be ez dozu.
697. Besteak onduteko, zeu ondu.

EGI BIRIBILLAK

6 (1936, 64. zk.) 120

698. Zoriontsua izateko, osasuna lenen, bakea urrengo, dirua irugarren.
699. Ardien obenak, bildotsak ordaindu bearra, sarri izan oi da.
700. Gaztaroan geiegi abestu badozu, zartzaroan negar egitea jausi leikizu.
701. Emakumeak barre, al dauan guztian; negar, gura dauanean.
702. Oillo ibiltari, azerien janari, neska dantza-zale, buru-ariñe.
703. Jakingairik bikaiñena, norbera ezagutzea.
704. Geiegiko apalkeria, egizko arrokeria.
705. Biarko egunaren jabe, iñor ez da.
706. Bateatukeran umeari izena emoten jako; ardaoari, kendu.
707. Ordikeria, zoroetxerako bidea.
708. Ezpateak erail asko; edaki txarrak, lurpera geiako.
709. Ardoa dan kolkoan, lotsarik ez, baiña zazpi oben nagusiak bai.
710. Mozkorren etxean, egunik ez bakean.
711. Andrea negarrez, umeak gosez, aoan biraoa, eskuan makilla; orixc, mozkorren opila.
712. Ondo esatea baiño, ondo egitea, egokiago.

EGI BIRIBILLAK

6 (1936, 65. zk.) 147

713. Bazkari larregiak, beste askori sarratu bideak.
714. Mozkorrak eta zoroak, aoa eta biotza zikiñak.
715. Diruaz edozer giten dala diñoana, adiskidetzako ez da ona.

716. Zordun bazara, jopu zarala, siñistu.
 717. Asarre orduan gauza on gitxi egiten da.
 718. Emoille txarra, artzaille ona.
 719. Beti bai-bai esaten deutsunagaz, kontuz ibili.
 720. Luzapide guzurtia emotea baiño, garbi ukatu, obe da,
 721. Bi erbiri batera, jarraitu, bata be ezin arrapatu.
 722. Katurik ez dan tokian, saguak pozik dantzan.
 723. Gosea eta bildurra, irakasle gaiztoak.
 724. Aurrera begiratzen ez dauana, atzean geratzen da.
 725. Bear zaitut, geratu zaitez; ez zaitut bear, ken zaitez.
 726. Alper egon eta alperreko lana egin, biak bardin.
 727. Arantza bako larrosak, bakarrik zeruan.

EGI BIRIBILLAK

6 (1936, 66. zk.) 176

728. Zuzenbidez ezin egin leitekena, indarrez ez da egin bear ezetara.
 729. Ondo irakasten dakianak, agiraka gitxi egiten dau, eta agiraka askogaz dabillena, irakasle ona ez da.
 730. Umeari, emon leikion guztia, emon; baiña ukatu bear jakona, ukatu.
 731. Seme gaiztoak azteko bidea, euren alde ezer ez egitea.
 732. Ezbai guztietan, norbait zuzen dago. Baiña zuzen zagoz, ez dau entzungo.
 733. Buru ona esku bakarragaz, berrogei esku buru barik baiño obe da.
 734. Amabi gaiztogaz, erdi-on bat ezin egin.
 735. Ondo egin dozunean, ondo eginda dago, bestek ondo zein txarto erantzun.

736. Jakintsu dirala, askok uste dabe, besteak ez diñoena esaten badabe.
737. Biotz zitalen poza, eurak baiño geiago diranak azpiratuta ikustea.
738. Aberats zikoitza, urre-zorroa bizkar ganean daroan asto bat baiño ez da.
739. Biraotiak bizi diran etxera, edozelako atsekabeak jaustea, egoki datorrena da.
740. Egia saltzen dabenak, gitxi dira; ondo ordaintzen dakienak, gitxiago diralako.
741. Atzera garaiz egitea, ez da betiko galtzea.
742. Gure idiak, adarrak luze, norbera langoak, besteak uste.

EGI BIRIBILLAK

6 (1936, 67. zk.) 197

743. Asarratzeko, bi gitxienez bear; zeu bigarrena izan ezin, zuretzako ez da iñoiz asarrerik.
744. Norbera ez asarratu, besteei asarrerik ez emon, asarratuak baketu. Zurtasun andia ortxe bai agertu.
745. Jainkoagaz eta eskubidez ibilli ezker, galbideak ez nau ondatuko.
746. Egazia egaratzeko bada, gizasemea lan egiteko jaioa da.
747. Iñoren diruaz etxea dauanak barritzen, etxe zarra eta barria ditu galtzen.
748. Gaitz txikiari jaramonik egiten ez deutsona, andiagoetan jausiko da.
749. Guzurtiaren itza, bere sorlekura biurtzen da.
750. Barriketa luzea, ez da izango guztia egia.
751. Edozeiñek edan ondoan, bere eritxia emoten dau agerian.

752. Lurbira osoan aurpegi bi, ez dira bardiñak; eritxi bateko buru bi, ezin aurkituak.
753. Baserritarrak, euren zoriona ezagutuko balebe, kaletarren bekaitzik ez euken iñoiz be.
754. Zoriona eldu bajatzu, geldi egon; andiago egingo dozu-la-eta, egoak ez emon.
755. Zorionaren txapela, ez da bakarrik sakela.
756. Aberatsa, guzur utsa; beartsua, amets utsa.
757. Edertasuna, iraupen gitxiko ondasuna.

EGI BIRIBILLAK

6 (1936, 68. zk.) 257

758. Bizitzako aldirik galbidetsuena, gizon izan baiño len, umea ez dala diñoanarena
759. Zuzentasuna, pozgari dalako, gaiztoenak be onesten dabe.
760. Siñeste bakoien araudia, burua agertu barik, gaiztakeri guztiak egitea.
761. Isekarik mingarriena, egia diñoanarena.
762. Zu eta ni ukabilka ez gara ibilliko, batak nai ez badau.
763. Oilloategaitik auzira bazoaz, onenean be arrautza bi izango jatzuz.
764. Beldarrez dagola-eta, sagarra moztu ba'dozu, zugatz barik laster zara geratu.
765. Eskubide zuzen bat kentzeko, beste amar auzi beariko.
766. Zarra ez dan guzurrik, eta barria dan egirik, ezetz aurkitu iñondik.
767. Ugazaba asko etxean badira, morroi gitxi lanera.
768. Indarkeria agintari bada, zuzentasuna erbestean da.
769. Lizunkerkeri bidez bazara sartu, atzera egin edo ondatu.

770. Jakintsua izateko, adimen zurra bear; jakitun okitua izateko, ekitasuna.
771. Euren izena aopean ekartea, askok nai leuke; baiña gauza goragarri gitxi egingo dabe.
772. Gorrak, itsuak eta motzak, edonon izango dozak.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 18

773. Gizon zurrak beti daroa, sorbalda ganean burua.
774. Nai dozuna beti egin badozu, eginbearra sarritan aztu dozu.
775. Gizona beti geldi, ez menpeko ez agintari.
776. Alperrontzi danak, astegunean lo, jaiegunez solo.
777. Zoroa etxerako, auzoko zurra baiña egokiago.
778. Gauzak arin egiteko bidea, astiro ibiltea.
779. Otsoari agiñak aldatu, asmo gaiztoak barruan geratu.
780. Oilloak garau eta garau, kolkoa betetan dau.
781. Gose andiari, edozein ogi gozo beti.
782. Itxaropena eta gosea, kolkoa berotzeko ez da onena.
783. Jazokun barriak etorri, lege barriak ezarri.
784. Eun jakintsuk ezin epaitu, eta goseti batek bertan amaitu.
785. Zoroa nai badozu zintzotu, noizik bein poliki zigorkatu.
786. Gizaseme azartuari, zoriona eskura etorri.
787. Zintzoa danak, soiñekoa lortzeko, izerdi asko bota bearako.
788. Gizakumea kalean, emakumea obeto dago etxean.
789. Nozik bein uts egitea, guztiona; uts egiten jarraitzea, astoena.
790. Ondo bizitzeko, gaur urun ona egin, eta biar be lanari ekin.

791. Aberatsaren umeari, soñean ez ikutu larregi.
 792. Gizona eta txakurra ixilik, kontuz igaro olakoen ondotik.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 28

793. Seme gaiztoa etxean, ondoen gaixorik dagoanean.
 794. Iru alaba eta ama, senarrak bai zeregin ona.
 795. Alaba gaiztoa badozu, dotea emon eta arin ezkondu.
 796. Astoakaz ibilli, eta arrantzaka berez ikasi.
 797. Ume asko etxean eta ogi gitxi, batek ez daki zelan bizi.
 798. Anaien arteko asarrea, deabruak biztu dauan labea.
 799. Jaungoikoak ondiño ez gaitu, esku biekaz zigorkatu.
 800. Ikusi, entzun eta ixilik egotea, gutzako gauza erreza ez da.
 801. Biotzak maite dauan tokira, oiñak bizkor elduko dira.
 802. Bear zelan egiten dozun, alantxe jango dozu.
 803. Guraso eta zarren onuak, beti gogoan eukitekoak.
 804. Osasuntsu bizitzeko, neurritz jan eta lotara goizetítxo.
 805. Afari geiegiak, bete ditu illobiak.
 806. Bazkal ondoren loaldi, afal ostean ibiltaldi.
 807. Asarrez ollaskoa baiño, bakez arto zatía gozoago.
 808. Afarian ardao asko sartu badozu, urrengo eguna mingos-
 tu dozu.
 809. Asto tentelari, beste asto bat makillarí:
 810. Astoak bai ondo jakin, noren aurpegira arrantza egin.
 811. Neurritik ez iñoiz urten, ibilli nai badozu beti zuzen,
 812. Diruagaitik ez egin, Goikoarentzat ez bada atsegin

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 38

813. Biotz zitala daroanak, ustelak bere ondorenak.
814. Guztien eretxia beti entzun, eta epaia astiro emon.
815. Dana eskeintzen dauana, ez da beti izaten onena.
816. Lagun dongakaz alkartu, nor zarean zeuk agertu.
817. «Astoa zareala», guztiak badiñotsue, arrantza sendo egiozue.
818. Urrez zamatutako astoaz, edozer lortuko dozu erraz.
819. Zarean baiño geiago, agertu nai izatea, ondo ez dago.
820. Zor dozuna laster ordaindu, izen ona euki gura badozu.
821. «Egingo dot», beti diñoanari, ez siñistu larregi.
822. Arrokeribako zintzotasuna, gure soiñekorik ederrena.
823. Luzaro iraun leiken gauzarik, eguzkipean ez da iñondik.
824. Zorionsua emen izatea uste badozu, guzurak urtengo deutsu.
825. Maitagarri izan gura badozu, biotz ona beti agertu.
826. Eukitea ez bajatzu egoki, ez egizu ikusi.
827. Egun alaitsuak sarri, illunabar negargarria ekarri.
828. Utsalak utsalentzat itxi, eta zeu goikoai begira bizi.
829. Beste batzuk irainduaz, zeure aurka beti zoaz.
830. Gero izango zareana, zeuk erabagi bear dozuna.
831. Bi asarre diranean, ez zaitetz sartu euron erdian.
832. On-ona ezin izan badozu, gaiztoa ez izatea zeugan dozu.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 48

833. Gaztaroan barre eta negar, zartzaroan neke asko igaro bear,

834. Ondo egiñagaz ez lotsatu, gaizki egiteak bai bildurtu.
835. Gizon antza daroan emakumea, urrun eukiteko ohea.
836. Emakume antza daroan gizona, ez etxean ez kalean ona.
837. Guzurra iñoiz be ez da ona, txerrena dalako bere aita.
838. Ondo egiñaren burestuna, orain eta gero zoriona.
839. Maian jaten ez badozu, sukaldera joko dozu.
840. Onbideak beti alaitasuna sortu, obenak biotza naigabetu.
841. Larregi jateak soiña kutsatu, eta griña zitalak gogoa pozoitu.'
842. Ondo egiñak beti daroa artuena, txarto egiñak zor latza.
843. Alaba bi baiño garestiago, oitura txar bat dozu etxerako.
844. Guraso onei sendia zaintzeko, lau begi naikoa ez jakez izango.
845. Aita ona izateko, jagi lenengo eta oeratu azkenengo.
846. Arantza bako larrosarik eta naigabe bako biotzik, ezin aurkitu nik.
847. Sendi bat zoriontsu bizitzeko, Goikoaren bildurra eta ogia bearko.
848. Asarre diran bitik gaiztoena, azkenengo ixiltzen dana.
849. Naikoa dogu zeregin, ura ekarri eta su egin.
850. Lastozko buztena daroana, beti suaren bildur izango da.
851. Ezkondu arte larri, ezkondata gero barregarri.
852. Norbere baserri, beti izan maitegarri.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 58

853. Iñoren ona ezin ikusi, biotza bekaitzez edenduta euki.
854. Auzokoa neu baiño obeto ibiltea, poztu bear nauan gauzea.

855. Zeutzako nai zeunkena, besteentzako opa izan bear do-
zuna.
856. Neu ondo eta besteak or konpon; olangoa ez kristau ez
gizon.
857. Larogei arima zeruratu, larogei biotzez Jainkoa maitatu.
858. Jarraibide onak ikustea, ikastolarik bikaiñena eukitea.
859. Gauzak ondo egiten dituana, besteei irakasteko egokiena.
860. Egiteko esan eta norberak egin ez, ortik ez goaz artez.
861. Arantza-erri, mundua; atsedeen-toki, zerua.
862. Umezarotik zartzaroraiño, besterik ez daukogu nekea
baiño.
863. Astiro ibilli eta garaiz eldu, arinka joan eta bidean galdu.
864. Alperrik igaro dan eguna, betiko galdu dogun ondasuna.
865. Lurretik etorri, lurpera biurtu; ez daukogu zegaitik arrotu.
866. Gazte eta zoro, zentzatuko zara bai gero.
867. Ardo gozoak lau begi, baiña oiñik ez euki.
868. Ezkondu eta ezkongai, danok ondo bizi nai, dirua bado-
gu jai.
869. Soiñekoa uda eta negu, beti lagun ona dogu.
870. Errenka dabillena iraindu baiño len, begira zeu bazabil-
tza zuzen.
871. Asko dakiana, nekez arrotu, gitxi dakiana, edozek ikaratu.
872. Neure etxeko kea, auzoko sua baiño obea.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 68

873. Zentzun bakoa barritsu beti, guzur asko eta egi gitxi.
874. Zentzundunak itz gitxi, esan bear ez dana ixilik euki.

875. Guzurrik ez esateko, agiñek eta ezpanak garbitu lenengo.
 876. Egia eta guzorra naste, kaskariñak ondo dala, uste.
 877. Onbidea badozu maite, egizale beti izan zaite
 878. Egia azkenean nagusi, guzorra ankaz gora jausi.
 879. Ondo egiña arin egiña, oker egiña iñoiz bez ona.
 880. Miñak azurrik ez dauko, baiña azurrek apurtzen ondo daki.
 881. Gaztaroa, edertasuna eta diruak, aizeak daroan lastoa baiño ez.
 882. Ibaiko urak ez dabe iñoiz atzerantz egiten, gure urteak olantxe.
 883. Zeure gogoko ez danari ondo egiozu, Goikoak sarituko deutsu.
 884. Ludian gure bizitzaldia, gabaz egiten dan ibiltaldia.
 885. Ezpata zorrotza baiño, min gaizto bat bildurgarriago.
 886. Biarko oilloa baiño, gaurko arrautza nik gurago.
 887. Idaztirik onena, ingozki gitxitan geien irakasten dauana.
 888. Bat irabazi eta bi galdu, orixe bai bizimodu.
 889. Baserritar kalezalea, sendiaren ondatzaillea.
 890. Osasuntsu nai badozu bizi, goiz oeratu eta goiz jagi.
 891. Ondo egiñari txaloak, beti jakoz egokiak.
 892. Beti izaten da gaiztoa, anka biko astoa.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 78

893. Gaztaroa zer dan badakigu; askatasun bidez jolastu.
 894. Gaztetan jolastu, zartzaroa nekeak inguratu, orixe gara gu.
 895. Gurutz bidea igaro barik, ez dako zerura igoterik.

896. Gurutz bidetik bazoaz, gaiztokira ez zoaz.
897. Bekoa eta goikoa, azkenean lurrak estaldua.
898. Sagarrak lez gizonak be, ondo elduteko, astinaldiak bearko.
899. Guztion eginbear estua, umetxoak onbidetik astea.
900. Atsekabeetan eroapena, donokirako burestuna.
901. Gaizki egin dauanari, bildurrak jarraitu atzeti.
902. Beti gerorako izten badozu, ornidua izatera nekez eldu.
903. Lan gogotsu egin barik, iñon ez dago zorionik.
904. Osasuna eukiteko, ibilli; ondasunak batzeko, ekin lanari.
905. Nekea menperatu egizu, nekepean zeu ez makurtu.
906. Iñori gaizki egiña, osotu ezik asketsi eziña.
907. Astoa zuk polito apaindu, baiña aoa zabalik arin ezagutu.
908. Norbait barrutik zelan dan, ondo ezagutu itz egikeran.
909. Jai egunetako lana, iñor aberastu ez dauana.
910. Jolasak eta dirua, zoriontsu izateko ez dira naikoa.
911. Ondo egin eta ondo esan, eta iñoren bildurrik ez izan.
912. Aditzalle onari, itz gitxi naikoa izan beti.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 88

913. Gure areriorik zitalena, geure urdailla.
914. Norbere naikeriak iltea, onbidean asko aurreratutea.
915. Oker egiñak biotza, beti erabili aginka.
916. Guztien gogoko izatea, ezin lortu geinken gauzea.
917. Jainkoaren bildur izan zaite, biotza nai badozu euki aske.
918. Artzea baiño emotea, egokiago datorren legea.

919. Artu bai eta emon ez, ori ez dok zuzen bidez.
920. Zartzaroari ganoraz eusteko, aurreratu egin bear-ko.
921. Atzo baiño gaur lau-ko bat geiago, bide ona, aberastute-ko.
922. Etxeari ondo erantzuteko, lurra eta beso sendoak bear-ko.
923. Asko jakiteak, ainbat arrotu; apala izatea, beti onuratsu.
924. Zeure burua ondo ezagutu, besteak nai badozuz ondu.
925. Gaizki baturiko dirua, ogasun zorigaiztokoa.
926. Zarrak zer erantzun daroa beti, gazteak zer ikasi.
927. Landara zarra iñausi ezkeru, zapuztu, gaztea indartu.
928. Jainkoari ekin erreguz, eta lanari malluz.
929. Guk lurrean azia erein, Goikoak garimeta egin.
930. Alperrentzi eta gosea, bata bestearen aidea.
931. Alperrenen lapiko, okela gitxi eta salda asko.

EGI BIRIBILAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 98

932. Aberatsak munduan, senide asko inguruan.
933. Alper-nagiaren sakelak, bi zulo andiak.
934. Gorrak,itsuak eta motzak, edonon aurkituko dozak.
935. Umeak eta zoroak, sarritan esan egiak.
936. Onak maite ez dituana, adiskidetzat artu bear ez dozuna.
937. Asarre orduan, gauza onik ez dago etxean.
938. Egi guztiak, ez dira beti esatekoak.
939. Mozkortia eta biraotia, etxearen ondamera.
940. Etxe baten etsai gaiztoenak: andra zentzunbakoa, itaxura eta kea.

- 941. Praka baltzetan puntada zuria, gizonarentzat, ez da itxuria.
- 942. Barri auxe dabil munduan, «bakotxa bizi dala bere moduan».
- 943. Gu bizi gara ederto, zeruan dagoan atsoa obeto.
- 944. Gabaz errondari eta goizean logura, olan ez zara osasun gura.
- 945. Ez ei dago ate itxirik, diruak edegi ez leikenik.
- 946. Gauzak guztiz amaitu barik, ez emon inoiz epairik.
- 947. Berakatz gordiña eta ardao zintzoa, bizarra azteko eragintsua.
- 948. Jakintsuak erantzutea baiño, astoak itaundutea errezago.
- 949. Gaztea zarragaz ezkondu, lapiko zarra konpondu.
- 950. Ezkontza ona eta osasuna, zerutik datorren ondasuna.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 108

- 951. Artzaiñik onena, beti ardien ondoan dabillena.
- 952. Esakunik ederrenak, malko artean sortu diranak.
- 953. Non ilgo zara, zeu araxe elduko zara.
- 954. Biotz alderdia zelan dan, begi-leioak esan.
- 955. Oker bat zuzendu nai, eta beste andiago bat egin.
- 956. Jakintsua izateko, irakurri asko eta goznartu geiago.
- 957. Guzurtirik andiena, arroputz dana.
- 958. Biotzik ederrena, gaizki egin deutsonari parkatu deutsona.
- 959. Jainkoaz aztuta bizi dana, burua simaurrez beterik daroana.
- 960. Jakin dagizun artzen, ikasi egizu emoten.
- 961. Zaratarik geien beti erreka txikiak, olantxe doguz gizon txikiak.

962. Aita onaren etxean danak pozik, gaiztoarenean goseak illik.
963. Gizonakaitik lan egitea, otzara baten ura eroatea.
964. Jainkoagaitik egitea, urre-zati ederra zerura bialtzea.
965. Oiturak beti ibilli, ibaiak lez bide batetik.
966. Jateko gozagarririk onena, gosea izaten da.
967. Zoroagaz eztabaidan ibiltea, norbera zoro biurtutea.
968. Askoren arloko zeregiña, beti ekin arren nekez egiña.
969. Beargiñak badira bakarrik, ugazabak naiko kalterik.
970. Aita beargiñari sarri, seme alperra etorri.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 118

971. Ezkonduak ondo bizitzeko, etxea bear dau beretzako.
972. Ezkonduta txarto bizitzeko, mutilzar geratu obeto.
973. Ondo oldoztu bako ezkontza, soiñeko zarrak eta etxe utsa.
974. Sabel utsetik, ez dator dantzarik.
975. Artaldea badozu, artzaiñik onena etxekoa dozu.
976. Zorduna bizi dala, zorra ordaindu daizula.
977. Neure agiñak beti urrago, senide guztiak baiño.
978. Ama on batek egin leikena, eun alkatek eziña.
979. Egun ona badator, etxean lotu gogor.
980. Maite-maite zaitut, baiña zure diruak oba ditut.
981. Diruak dirua ekarri, gosetik gosea etorri.
982. Lapurrak iñorena daroa, deabruak lapurra bera.
983. Belu jagiten bazara, ez meza ez otzara.
984. Morroi loti eta katu miaulari, artu orduko ondo ikusi.

985. Aske bizi nai badozu, barriketa gitxi entzun eta dirua zorpean ez artu.
986. Lugiñen egutegia, euria; kaskariñena, aizea; kristau onak, siñesmena.
987. Andra prestua eta berna ausia, kalean gitxi ikusia.
988. Gizona diruak ornidu ludirako, deuntasunak zerurako.
989. Nai gari nai galtzu, emon ezkeru ixilik artu.
990. Or-emen laprast egitea, guztiontzako dan legea.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 128

991. Neure etxean beti nago, besteenean baiño zoriontsuago.
992. Ondo ez dana ezkondu, gizonak egin eta andreak agindu.
993. Aurpegiz santu eta egitez sagu, olangoari bota lau katu.
994. "Iturri onetatik ez dot edango", ezin esan iñok argiro.
995. Dana ezin badozu lortu, al dozuna beti artu.
996. Gauzak ondo egin, bestela bape ez egin.
997. Zeregin bat ondo asi badozu, erdia eginda daukozu.
998. Diruagaitik adiskide dozuna, arin etorri eta belu joana.
999. Jaka polita daroan lugiña, etxeari eusteko ez da onena.
1000. Emakumea eta dirua, kontuz erabilteko soiñua.
1001. Morroi onaren legea, lan asko egin eta ixilik ibiltea.
1002. Beirik etxean ez, eta ezin asetu talo-esnez.
1003. Zaldi zarrari emon beti, pentsu asko eta bedar gitxi.
1004. Gaixoaldi eta asarreak, aotik datoz geienak.
1005. Emakumeak gorde ixilik, zenbat urte dituan bakarrik.
1006. Ondasunak euki eta testamenturik ez, sakela bai baiña bururik ez.
1007. Osagillearen adiskide, gaixotu baiño len izan zaite.

1008. Parkatu bearrik ez izateko, iñor ez iraindu bearko.
1009. Ezkontza ona egin dozu, besaka ez bazabiltza urtebete barru.
1010. Zoriona emen nekez ekarri, zoritxarra berez etorri.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 12

1011. Zeuretzako gura ez dozuna, iñori opa izan bear ez deutozuna.
1012. Beti bakean bizitzeko, gorra eta itsua izan bearko.
1013. Zetako jaio ziran ezagutu barik, edozenbat doaz mundu onetatik.
1014. Alperrontziari, astiro ibiltzen dalako, zorri asko batzen jako.
1015. Ondo ezkondu gura badozu, zeure antzekoa artu.
1016. Sukaldeko laratzak, ondo jakin egi eta guzurrak.
1017. Lagun urkoa epaitu baiño len, geu ibilli bear zuzen.
1018. Guztiok erabili, zar zein gazte, egia eta guzurra naste.
1019. Zartzarorako ondasun betea, alaba on bat etxean eukitea.
1020. Oera pekatuan doana, txerrenagaz etzanda aurkitzen da.
1021. Barrerik gozatsuen, grazian dagoanak egiten dauana.
1022. Nortbaitek daroan alderik minberakorrena, sakela deitzen jakona.
1023. Merke dala-eta ez erosi, bear ez dozun gauzarik, ez asko ez gitxi.
1024. Ludi onetan iru jauntxu dira nagusi: "arrokeria, urregoria, eta aragikeria". Orreik ikutu barik, nekez bizi.
1025. Zikiñak zer egin leiken badakigu: "zikindu".
1020. Kristau onak eriotzan bizitzen asi, obendiak betiko espetxera jausi.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 23

1027. Lagun onari, ez iñoiz ateak itxi.
1028. Zure zoritxarrak edozeiñeri ez kontatu, bestela asko egingo jatzuz poztu.
1029. Asko dakizula uste badozu, ez dakizuna asko geiago dala siñistu egizu.
1030. Norbere burua ezereztat epaitzea, zurtasun andia.
1031. Gure biotzaren ezibako zalekeriak, beti azpiratuten gaituen arerioak.
1032. Oker egiñak atrapetako amua, egizko biotz-damua.
1033. Siñausle (hereje) guztiak azkenean, makurtu dira aragiaren oiñetan.
1034. Beartsu eta txiroa izateko bidea, “iñorena ostu eta jaiegunetan lan egitea”.
1035. Bizkar ganean doazan uledun borobillak, erdiek baiño geiago “kalabaza utsak”.
1036. Zure arazoak zeuk asi eta zeuk amaitu, besteak eurenagaz naiko daroe zeri begitu.
1037. Onoimenak gogoia beti alaitu, pekatuak barriz biotza nairgabetu.
1038. Beste mundura doanak, emen itxi bear diru eta atsegiñak.
1039. Bizitzaldiak danoi egi au erakutsi: “gorantz igoten baiño ariñago jatsi”.
1040. Billatu neban gudaldi bako bakea, eta erakutsi deuste or “kanposanturako atea.
1041. Gazteak nai dauana egin, zarrak al dauanari ekin.
1042. Orain uts egin gero okerra zuzendu, olantxe doa gure bizimodu.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 34

1043. Bizitzaldiko liburua irakurrita, geien geu geratu arrituta.
1044. Iraiñak parkatzea baiño, mesedeak aztutea dogu errezago.
1045. Besteei irakatsia egin bagendu, onezkero bagiñan santu.
1046. Diruak dana lortu leikela diñoanari, ez jarraitu larregi.
1047. Nagusi bazara kontuz ibilli, goian dagoana urrunetik ikusi.
1048. Arrokeria eta nausikeria, lo gozo asko galtzeko bidea.
1049. Amar umek aita baiño, aita batek amar ume maiteago.
1050. Jakituriak ez dau iñoiz uts egiten, jakitunak bai sarriten.
1051. Danok doguz bizitzaldi bi, emengoa arinka joaku eta bestekoa ariñago jatorku.
1052. Jainkoari bildurrik ez deusonagaz, ez zaitez ibilli egunez eta gitxiago gabaz.
1053. Adiskide, liburu eta ardao, zenbat eta zarrago maitagarriago.
1054. Asarreari etxean ostatu, iñoiz ez emotea oba jaku.
1055. Txoriak zuloturiko kerexak dira gozoenak, nekaldi bidez garbituriko biotzak be ederrenak.
1056. Gero itxaroten dozunagaitik, gaur daukozuna ez itxi joaten eskutik.
1057. Biotz ongillea eta jaunzalea, beti da ederra eta beti gaztea.
1058. Legeak ondo gorde ezik, astorik dotoreenak ibilli goitik.
1059. Irurogei urtean adiskide izan diran bi, gizon zintzo eta ontzat euki.
1060. Gizonak abere barik ezin bizi, abereak oster a gu barik ederto ibilli.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 46

1061. Besteei agindu eta norberak ez egin, oker andia dala edonok jakin.
1062. Alperreko barbarik ez atera agotik, kalte asko datorrelako ortik.
1063. Aoko agiñak gaztetu al izateko, urteak lepotik gitxitu bearko.
1064. Ondasunak eta etxea gurasoak itxi, emazte ona goragotik etorri.
1065. Besteei lagunduten bizi dana, oraingo eta geroko zoriontsua.
1066. Lagunekaz otz eta arro agertzea, berez otza eta arroa izatea.
1067. Berebilla arinka sarri biderdian geratu, astotxua geldiro azokara beti eldu.
1068. Euren argazkia batzuk ez nai erakutsi, atera dalako eurak diran lez argi.
1069. Zugaitik gaizki esaten entzun badozu, egia izanik zuzendu, guzurrez bada sorbaldak jaso eta kitu.
1070. Gure zoriona, daukogunetik baiño, itxaroten dogunetik geiago jatorku.
1071. Ulertu ondo, “gaiztoak gara, ezagutzen ez garealako”
1072. Emakume batzuk musu-ezpanak margotu lotsagarriri, berez itsusi eta motzak dirala iragarreko.
1073. Egizko zoriona, gogoa garbi eukita bakarrik aurkitzen da.
1074. Gizonak larogei urtedun dala, uste dau ogei urtegarz baiño gitxiago dakiala.
1075. Jausita dagoan zugatzari, aizkora danak gogor ezarri.
1076. Erromara joan arren astoa, andik etorrita be au lengoa.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 59

1077. Burdiñazko biotza be, diruak bigundutea izan leiteke.
1078. Biotza sarritan dabil orroaka, miña egon arren ixilka.
1079. Itsua itsuaren zuzendari, biak zulora baietz jausi.
1080. Beti txarto jaten badozu, baraurik naikoa egiten dozu.
1081. Daukanak eralgiten dau, ez daukanak ostera, ez egun ez gau.
1082. Urte txarrari erantzuteko, talo-esne eta urdai lapiko.
1083. Eguraldien neurrira, garia eta artoa etxera.
1084. Illai eta joan ziranai, adiskide gitxi jarrai.
1085. Atzetik datorrenak, bizkortu dagizala orpoak.
1086. Bizimodu onak askori, aita eta ama aztu eragin.
1087. Aitaren etxea eta aitonaren maastia, tamalgarri da galtzia.
1088. Goizeko arrautza eta gaurko ogi, iazko ardao eta aurtengo oillo, mairako datoz beti ondo.
1089. Gure gorputzari bear ez dana ez iñoiz emon, bestela oitu ezkeru beti eske egon.
1090. Erriari zoriontsu egingo dabela diñotsienak, erri orren lepotik bizi gura dabenak.
1091. Emazte ona eta ama ona izateko, iru erriko alkate izateko baiño, jakituri geiago bearko.
1092. Bere onerako adiskide egiten jatzuna, alde batera itxi apurka-apurka.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 69

1093. Umeak egiz maite dituan aitak, ezin iñoiz parkatu euren utsegiñak

1094. Burdin otzean jo eta jo, alperrik abil kokolo.
1095. Jausita dagoanari eskua pozik luzatu, eta zein dan ez begiratu.
1096. Asko eskeñi eta asko goraltzen zaituanari, gitxi siñistu olango koipetsuari.
1097. Beso-bularrak badaroaz agirian, arroa eta buruariña baietz izan.
1098. Kristiñau-ikaskizuna ondo jakitea, errirako zaintzaillerik garbiena.
1099. Norbere burua garaitzea, gurendarik bikaiñena lortzea.
1100. Nai badozu aske bizi, zalekeri okerrak ilda euki.
1101. Ludi osoa ezereztat euki, gora joatea nai badozu irabazi.
1102. Zeruko atea len baiño zabalago dala uste badozu, oker zagoz eta albait lenen itzartu.
1103. Besteak, ni goretsi zein esetsi, nazana baiño ez naz ni.
1104. Guzurtiak guzurtiari eta arroak arroari, adarra jo bai egoki.
1105. Len egiñak aztertu eta egitekoak goznartu, bide zuzena dogu.
1106. Artzea baiño emotea, beti dogu ohea.
1107. Izen ona, ondasunik opagarriena.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 80

1108. Sabela daroanak beteegi, burua ezin euki argi.
1109. Begia ikustez eta belarria entzutez ez dira gogaituten errez.
1110. Ikusi eta entzuten doguzan gauza asko, geure arimaren kalterako.
1111. Bizitokirik gozoena neure etxea, adiskiderik zintzoenak neure aita eta ama.

1112. Barritsuak barriketa asko ezer ez esateko, alperra ibilli asko ezer ez egiteko.
1113. Barre asko egiten da domekaz, negar egiteko astelenez.
1114. Etxe zale eta langille zintzoa, sendi guztiaren eguzkia.
1115. Auntza sasi artera sartu, aumeak araxe be jarraitu.
1116. Emon doguna ixildu eta artu doguna azaldu, biotz zindo badogu.
1117. Benetan txantxetan, alperrak gosea ugari agiñetan.
1118. Idi zarrari arran barria ipini, eta naiko dotore ibilli.
1119. Idi zarrari emon aska barria, eta aldatu jako ganeko ulea.
1120. Gaiztoak gaizki egiteko, era egokia beti dauko.
1121. Abade jantzi arren, edozein ez da jaupari gure errian.
1122. Zoritzar bat ez jaku egiten ain garratza, bakarrik igoten badau aldatsa.
1123. Semea gurasoen poza edo negarra euren soloko bedarra.
1124. Jaunaren begi zorrotzak neuri begira, edonun aurkitzen dira.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 91

1125. Bakotxak eroan bei bere gurutzea, olantxe dalako Goi-koaren legea.
1126. Begiak, siñismena eta izen ona, ikutu ezkeru arin galtzen jakuna
1127. Aizea, emakumea eta zoriona, gaur artez badabitza biar jatorkuz bestera.
1128. Billuzik jaio billuzik bizi, ez galdu ez irabazi, olantxe gara zu eta ni.
1129. Biotz-garbi zintzotik, nekez dator asmo gaiztorik.

1130. Eriotz-gaitza eldu bajatzu, osagilleari alperrik deitu.
1131. Lotu bako idiak, non-nai aurkitu bedartza onak.
1132. Ogi gogorrari agin zorrotzak ezarri.
1133. Nire senarra mozkorti, banenkian eta orain ixil-ixilik egon eta datorrena irunsi.
1134. Neure etxean neu nagusi, auzokoari bakean itxi.
1135. Idiari adarretik, gizonari itzetik.
1136. Bein esan dozun itza lotzeko, giltzarik ez dozu aurkituko.
1137. Buru ona badozu, txapela zetako dozu?
1138. Arroputz andizaleari, aginpide guztiak izango jakoz gitxi.
1139. Deabruak erosten ditu lenengo ardaoa eta jolasak, orren ondoren ango arimak.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 103

1140. Gure burua azpiratzea, egunero onean zerbait aurreratzea.
1141. Jakituriaren azterpen sakonak baiño, geure buruaren ezagutze apala dogu zuzenago.
1142. Siñesmen bako gizakumea, ego bako txoria.
1143. Orren maite zaitudan diru-zorro ori, neugaz gero ezin etorri.
1144. Bildurrik ez daukan erria, egiz da bildurgarria.
1145. “Egia erregarria” dalako, egia entzuteak minduten ditu asko.
1146. Idia noranai etorri, buztarripean adarrak erabilli.
1147. Auntzik euki ez eta aumeak saldu, ori zelan danok ulertu.
1148. Bide ertzetan entzuleak ugari, badaezpada kontuz ibilli.
1149. Idi zarrak bere soloan, lur-askak ederto gertau beingoan.

1150. Jabea udabarrian geldi egon, eta soloak udazkenean ezin emon.
1151. Besteei onu ederrak emon, eta neutzako bape ez egon.
1152. Gizarterik geiena zer dan badakigu, bata bestearentzako txakur-katu.
1153. Gizonaren urteak daroetz zati bi: lenengo erdiak amets zoragarri eta beste erdiak ai-ene tamalgarri.
1154. Errien oiturak uren antzera, berez jausi aldats beera.
1155. Biotz ongillea daroanen arpegia, beti da ederra ta maitegarria.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 114

1156. Eroapena, itxaropenaren alaba kutuna.
1157. Adiskideari, dirua aurreratu, adiskide barik geratu.
1158. Aberatsak egizko adiskide gitxi daroetz bizitzan, eta guzurrezko senide asko eriotzan.
1159. Guzurtiak eta saguak dozuz alkarren antzeko zuloen bat beti agertu atrapetako.
1160. Barre batzuk ez doaz agiñetatik urrunago, sotin batzuk bez ezpanetatik barrurago.
1161. Iñoren zoritzarrak oldez jasateko, danok daroagu gertu geure lepo.
1162. Atsegin eta jolasei eriotza-epaia emoteko, zartzaroa dogu guztiok naiko.
1163. Gizona berez biurri jαιο, artez ibilten ikasi egin bearako.
1164. Etorkizunaren adiskiderik zintzoena, geure irudimena.
1165. Jαιο zan baiño txiroago ilten, ez dogu iñor ikusten.
1166. Morroi eta illar, iru urterako lar.

1167. Idi gaiztoari adarrak, geroago eta luzeagoak.
1168. Etxea ondo erabilteko, zelan irabazi alan eralgi bearako.
1169. Gu biok ukabilka ezetz asi, ixildu ezkeru zu edo ni.
1170. Idiak beti bardin abestu, “mu” asi eta “mu” amaitu.
1171. Ainbatek daroe burua urdin, baiña zentzuna ondiño urrin.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 123

1172. Gure griñak katamotzen antzera, andiago eta zitelagoak biurtuten dira.
1173. Iraiñak ixilik jasan, txaloakaz ez arrotu, nekaldian ez espatu, bide zuzena auxe dogu.
1174. Norbera bere gaietan, epaikari okerra askotan.
1175. Iñor ez epaikatu, danakaz irribarretsu agertu, bake osoan bizi nai badogu.
1176. Gaztetan alperrontzi edo mozkorti ziranak, zartzaroan txiro eta prakazar geienak.
1177. Il jantziak obira, diru-sakelik ez daroa.
1178. Aitak zigorkatu bazaitu, merezi dozulako da-eta ixilik artu.
1179. Nekearen kolkoan ezti apur bat beti, atsegiñaren soloan arantza eta beztuna ugari.
1180. Gauzak urduri eta arinka egitea, zurtasun gitxi erakustea.
1181. Judasen antzeko saltzaille guztiak gaur urkatuteko, lokarri asko billatu bearako.
1182. Seme baten naigaberik zorrotzena, bere gurasoen okerrak zuzendu bearra.
1183. Gizakumeak eta errekek, asikeran doguz garbienak.
1184. Eskuko atzamarrak, ezetz erakutsi iñok bardiñak.

1185. Deabruak deabru dalako baiño, geiago ei daki zarra dalako.
1186. Besteen onerako bizi danak, guztien zoriona daroa.
1187. Edozeiñentzat berbarik gozoena, bera goraltzen datorrena.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 130

1188. Guzurra deabruarena, egia Jainkoarena, itzi ba guzurra beste aldera.
1189. Ardaoa eta txaloak alkarren antzekoak, gitxik adoretu larregik mozkortu.
1190. Jolastokietako bazterrak baiño, mendietako aizeak osasuntsuago.
1191. Bein jausi danari parkatu, baiña arin jagi daitela be eskatu.
1192. Etxean geiago euki nai ez dozunari, ateraiño lagundu eta esan garbi : “neuk deitu arte ondo ibilli”.
1193. Ankak ez daroaguz zuk eta nik oiñetakoak apurtzeko edo dantzan egiteko bakarrik.
1194. Naikoa emoten deuskuenik ez dogu iñoiz uste, geuk bai sarri, larregi emoten dogula.
1195. Zure oldozkunei aurrez aurre begiratu, eurokaitik gero eza zaitezcan damutu.
1196. Gure irudimena, garaunetan daroagun egazkiña.
1197. Gure bizitzaldia iñoiz ez da osoa, korapillo bat askatu orduko beste aldera.
1198. Aita-semeak tabernazale, ama-alabak dantzari, etxe aretan izango dira soiñeko zarrak ugari.
1199. Gizakume askoren biotza, zitalkeriz beteriko odoloste motza.
1200. Emakumea arro-dotoretxua, sakelaren garbitokia, begi lizunen zerua eta arima askoren inpernua.

- 1201. Zintzoaren aoko itzak, bere biotz ederraren giltzak.
- 1202. Maltzuraren ezpanetako itza, barruko doillorkeria estaltzeko autsa.
- 1203. Ordu bakotxari bere lana emon, gauzak ondo egiteko astia beti egon.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 3 (1953) 32

- 1204. Jainkoari emon ezker berea, gitxi izango da zurea.
- 1205. Udabarriko lorak, udaldiko ekaitzak eta neguko edurtzak, orixe daroa gure bizitzak.
- 1206. Dana ukatutea, jakituri merkea.
- 1207. Urkatuko zaituanagandik, ez artu iñoiz mesederik.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 3 (1953) 45

- 1208. Kristau ona ez dan gizona, ezin izan auzoko ona.
- 1209. Okerrak beti gorrotauko zaitu, oker dabillega badiñotsazu.
- 1210. Maltzurak indartsuari, goitik egingo deutso beti.
- 1211. Jan-edanetan neurritz dabillena, osagillerik bear ez dauana.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 3 (1953) 55

- 1212. Bekoei ostikoka eta goikoei belauniko, ez dozu ortik gitxi ikusiko.
- 1213. Barruko gaixoa eta ixilleko arerioa, bildurgarriena.
- 1214. Gauza asko dakizana baiño, gauz onak dagizana jakintsuago.
- 1215. Batzuentzat gauzak ondo dabitza, eurak ondo badabiltza.
- 1216. Ixilik dagoan zoroa, zurtzat edozeiñek daroa.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 3 (1953) 60

- 1217. Olloari oloa, mandoari lastoa eta gizonari ogia eta artoa.
- 1218. Batera ezin egin guk, putz eta zurrut.
- 1219. Burdiña jo sendo, bero badago.
- 1220. Gure bizitza luzatzeko bidea, laburtzen ez iztea.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 3 (1953) 67

- 1221. Gaiztakeria beti gorrotatu, ondo egiñaz ez iñoiz lotsatu.
- 1222. Ara zer diran gaiztoak: osagillerik nai ez daben gaixoak.
- 1223. Guzurtia, alperria eta moskortia, astokoren anai bikia.
- 1224. Urteak bajoakuz arinka, samintasunak geratu millaka.
- 1225. Plazan egiten dan ezkontzak, etxera gero gosea eta dantzak.
- 1226. Amarik ez daukan umea, ume errukarria.
- 1227. Gauzak neurritz ez bajakuz etorri, euron neurria geuk jarri.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 4 (1954) 21

- 1228. Ondo esan eta ondo egitea, biotz andia daukanaren bidea.
- 1229. Gaztaroan geiegi abestu badozu, zartzaroan negar asko egitea jausi leikizu.
- 1230. Beartsuari emon zeure ogitik, sari ona artu daizun goitik.
- 1231. Umeari bateoan izena jarri, eta izena kendu ardaoari eta esnari.
- 1232. Gauzak ondo epaituteko, adimena eta biotza alkartu bearko.
- 1233. Andikeriak eralgi guri diru geiago, goseak eta otzak baiño.

1234. Gogo gaiztoa daukanagandik, ez itxaron gauza onik.
1235. Gaixoaldi luze bat, irakasle bikaiña edozeiñentzat.
1236. Nogaz zabiltzan esaidazu, eta zelakoa zarean entzungo dozu.
1237. Lau irabazi eta iru eralgi, gaur atzo baiño aberatsago ni.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 4 (1954) 28

1238. Etxea egiten asi baiño len, begitu ondo zegaz jaso leitek-en.
1239. Atzoko okerra gaur zuzendu, eta biar artez ibilteko alegindu.
1240. Norbaiten bikaintasuna, biotzez eta ontasunez neurtzen da.
1241. Ludiko atseginkeri guztiak, oso laburrak eta guzurtiak.
1242. Gaitza ondo dator bakarrik badator.
1243. Dirua gizon onaren eskuetan, ondo dator sarri askotan.
1244. Zorpean ez zaiten ondatu, erosten dozun ordukoxe ordaindu.
1245. Aberatsa eta ezeukia, billuzik jaio eta billuzik lurpera.
1246. Ikasi egizu ixilik egoten, iñok irakatsi baiño len.
1247. Artatxorien bildurrez zu, artoa erein barik ez geratu.
1248. Ezkondu baiño lenago, txabolea gertu bearako.
1249. Edertasuna eta deuntasuna, edozein landatan agertzen ez dana.
1250. Besteak ondo zein txarto eritxi, ondo egiña ondo dago beti.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 4 (1954) 44

1251. Aurrera jatortzun guztia ez ikusi, eta al dozun guztia ez erosi.

1252. Inñoren okerrak ez egizuz salatu, zeureak zuzenduteko bai alegindu.
1253. Irakurriaz batzuk jakituria aurkitu, bestetzkuk astokoago biurtu.
1254. Ondoen beti be gu, geure buruagaz konpondu.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 4 (1954) 79

1255. Maitatua dan nagusia, ez da zurtasun gitxiduna.
1256. Gure nekaldiak daroe beti urtezko erlojua, atsegiñak ostera miñutuzkoa.
1257. Arroak zordun dala ez deutsu autortuko ezetara.
1258. Zerua maite badozu, biotza gorantz beti joatzu.
1259. Lurra maiteago badozu gogo guztia lurrera jatortzu.
1260. Guk emen zer maite dogun, ara joaku biotza gau eta egun.
1261. Eguna alperrik galtzera jatortzuna, ez beite izan zure kultura.
1262. Oitura txar bat kentzeko, biar baiño gaur errezago.
1263. Ez da jakitun bikaiñik, ekin eta ekin garaunak urtu barik.
1264. Gizon andia goralpenak ez arrotu, ezesprenak bez naigabetu.
1265. Lujua dirua alperrik eralgi, bear dana gero ezin ekarri.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 4 (1954) 100

1266. Zergaitik jaio giñan negarrez, gero ikusi dogu artez.
1267. Irainduten gaituanak gu zorotzat artu, goralduten gaituanak barriz zoratu.
1268. Ordu baten eun berba esan ez dituana, emakume zentzunduna.

1269. Senarra zaindu eta umeak ondo azten dituana, etxe-ko andra bikaiña.
1270. Lagun gaiztoak izatea baiño, bakarrik egotea obeto.
1271. Bedar txarra edonon azi, gizona gaiztakerira berez jausi.
1272. Lanean nekatu danaren loa, amets gitxi eta lo gozoa.
1273. Ekaitzagaz ez zoaz itsasora, asarrealdiz ixilik bego zure miña.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 5 (1955) 6

1274. Zure naigabeak eta pozaldiak, ez dozuz edozeiñeri esatekoak.
1275. Ariñegi egiten dozuna, nekez izango jatzu on-ona.
1276. Norbait apalago dan neurritz, goragarriago da egiz.
1277. Zoriontsu bizi nai badozu, iñoren onagaz beti poztu.
1278. Begi bat naikoa saltzailleari, zortzi be gitxi erosleari.
1279. Oker itz egitea baiño, ixilik egotea obeto.
1280. Edozeiñek agindu txakurrari, eta txakurrak bere buztanari.
1281. Nagusien aginduak beti egitea, il aurretik martiri izatea.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 5 (1955) 21

1282. Dana jakin nai izatea, kaskarin bat dala adierazotea.
1283. Zuzena poztu eta gaiztoa bildurtu, eriotzeak egiten ditu.
1284. Gerokoa ondo neurtuteko, lengoa azterkatu astiro.
1285. Zeure etxaldeak poztuten bazaitu, zoriontsua zara zu.
1286. Gorroto izan beti pekatua, eta maite izan lagun urkoa.
1287. Umeak eta abestiak, beti, gure atsegingarri.
1288. Jainkoa non dan esatea baiño, non ez dan esatea gaitzago.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 5 (1955) 38

1289. Edozein burukeriri ez siñistutea, zentsundun agertutea.
1290. Zure ametsa beti diruetan bada, zorionekoa ez zara.
1291. Beti bizi nai geunke, eta bizitzeari geu gabitza arrike.
1292. Gari zorro ona etxera ekarteko, artatxoriai ez deitu la-
gunduteko.
1293. Bizi danari, ondoen illak irakatsi.
1294. Iñori ondo egiñaz, zorionekoa lenengo neu naz.
1295. Gizon izaten umeari, txikitatik erakutsi.
1296. Gero jausi leiteken zoritxarragaitik, gaur ez galdu.
1297. Jausten dana baiño, jagiten ez dakiana zoroago.
1298. Oiñak ez eroan gero, zeu zarean baiño aurrerago.
1299. Aberatsa izateko, zorrik ez itxi biarko.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 5 (1955) 47

1300. Astiro doana beti eldu, ariñegi doanak biderdian ukatu.
1301. Jazokunak geuk zelan artu, zorigaiztoko gara edo zo-
riontsu.
1302. Badazpadako lagunari, eskua ez emon larregi.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 5 (1955) 54

1303. Gaurko zoritxarrari baiño, biarkoari askok bildur geiago.
1304. Bizikera garbiak gizonari, gauzak ondoen irakatsi.
1305. Entzun eta ikusi, baiña zu astiro ibilli.
1306. Zarren epaiak, adi-adi entzutekoak.
1307. Dirua, oiala eta emaztea, egun-argiz aututea jatzu onena.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 6 (1956) 69

1308. Guzurra dator dabruaren dendatik, alde egin ba guzur-tietatik
1309. Gitxi artu eta asko emoten dogula, ori guk sarritxo uste.
1310. Aitak zigorkatu bazaitu, zeozergaitik da eta burua makurtu.
1311. Maite zaituala diñotzunari, ez begiratu gero larregi.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 6 (1956) 82

1312. Diran lapur guztiak urkatuteko, soka askotxo gaur bear-ko.
1313. Orko dendetan milla gauza salgai, baiña zentzuna ezetz ekarri.
1314. Katamotzak eta gure griñak, andiangoak eta zitalagoak.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 6 (1956) 86

1315. Eroapen gogotsua, itxaropenaren alaba maitetsua.
1316. Amaiktxok burua urdin, baiña zentzuna ondiño urrin.
1317. Idi gaiztoaren adarrak, geroago eta luzeagoak.
1318. Etxea eta soloak zureak badira, ez ibilli iñorenei begira.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 6 (1956) 100

1319. Zelan irabazi alan eralgi, ganoraz nai badozu bizi.
1320. Guzurtiak doguz saguen antzeko, zuloen bat beti atrape-tako.
1321. Auntzik ez euki eta aumeak saldu, mirari ori nok ulertu?
1322. Idia noranai ibilli, adarrak buztarripean beti.
1323. Bide ertzetan nok entzun ugari, badaezpada kontuz ibilli.

1324. Illa lurperako, bizia lanerako.

1325. Berez motza dana, polito apaindu arren lengo-lengoa.

EGI BIRIBILLAK

Karmengo Amaren Egutegia 6 (1956) 110

1326. Bakotxak badau bere soloa, esku onetan dabil artoa.

1327. Lapikokoa jan eta lapikoa be eskatu, iñoiz entzun dogu.

1328. Gauza txarrari, eriotzea nekez etorri.

1329. Oillarra ixilik eta oilloak kantari, bakea ortxe ez da bizi.

1330. Gose eta egarri etxean, alan be kantari kalean.

EGI BIRIBILLAK

Karmel 1957-2, 2

1331. Bere etxeko barri, ondoen norberak daki.

1332. Zu andi eta ni txiki, egiz ori gero ikusi.

1333. Txoriak eder bere kabia, edonok maite bere aberria.

1334. Artu bai eta emon ez, ezin legike lege onez.

EGI BIRIBILLAK

Karmel 1957-3, 2.4

1335. Asarrez itz egitea, geienetan uts egitea.

1336. Astakeriak diñoazana txalotutea, asto eta erdi izatea.

1337. Naigaberik zorrotzenak guri, geure kolkotik etorri.

1338. Gauza guztiak daukez aurpegi bi, zuk beti begiratu ederenari.

1339. Gorengo maillara igoteko, bitartekoak igaro bearako.

1340. Aldiak dana ugertu, eta eriotzak dana amaitu.

1341. Zer zarean ondo jakin nai badozu, arerioak zer diñoan be entzun bear dozu.

EGI BIRIBILLAK

Karmel 1957-4, 2.6

1342. Beretzat bakarrik, iñor ez da jaio.
1343. Tximista ondoren, trumoia; asarre ondoren, makilla.
1344. Ekin eta ekin, zoriona, norberak deritxona.

EGI BIRIBILLAK

Karmel 1958-2, 6.20

1345. Dana guztion gogora egiten dauanik, ez da jaio oraindik.
1346. Gure ume aroa, julastuteko; gazte aroa, amets zoroak edateko; zartzaroa, arrausika gogaituteko.
1347. Akatsik bako lagunen billa, alperrik ibiliko gara.
1348. Egizko adiskidetasunari, negu otza nekez etorri.
1349. Oilloa kantari, goseak erabili.
1350. Jakitun eta aberats izateko, arloari gogotsu ekin beariko.
1351. Bizitzeko zorientsu, gitxi esan eta gitxi siñistu.
1352. Datozen gauzak ezin badira zuzendu, alperrik ez atseka-betu.
1353. Zartzaro errukarria ezbai barik, gaztetan bide ona artu ezik.
1354. Zu nogaz ibilli, nor zarean zeuk igarri.

EGI BIRIBILLAK

Karmel 1962, 45

1355. Egiak beti, arpegia garbi.
1356. Guzurrak sekula iñori, azken onik ezin ekarri.
1357. Gizartean ainbat alper ez balego, guztiok zorientsuago.
1358. Eriotza gomutau ezkerro, oben egiterik ez dago.
1359. Otza eta eriotza, biak bekoki motza.

1360. Aldiak emen guri, naigabe asko ekarri.
 1361. Ilteko askok gogorik ez, eta bizitzeko indarrrik ez.
 1362. Atsekabea emongo deuskuna, nekez siñisten doguna.
 1363. Geu zoriontsu izateko, zoriontsu egin beste asko.
 1364. Norberak artzea baíño, emotea jaku sarigarriago.
 1365. Aberats zikoitza baiño, txiro errukarriagorik ez dago.
 1366. Itsurik itsuena, ikusi nai ez dauana.
 1367. Askoren arteko nekeari, arintxoago guk eretxi.
 1368. Nekaldi ondorengo pozaldia, beti jaku eztsuagoa.
 1369. Gaizki egiten dauanari, bere zigorra eldu beti.
 1370. Itsuak itsuari eta lapurrak lapurrari, abegi ona erakutsi
 eta edena erantsi.
 1371. Gogozko mendira igoteko, aldatsak be gozo.
 1372. Miñaz uts gitxiago egiteko bidea, itzak ondo neurtuta
 esatea.
 1373. Biotzez zoro eta aoz bero, edozenbat dira gero.
 1374. Bururik ez euki eta txapel billa ibilli, au bai barregarri.
 1375. Zerura eltzeke bidea, ara begira bizi eta iltea.

* * *

Sail labur honeek A. Martin pentsalari eta irakasle erlijiosoaren bihotzean eta luman dabe jatorria. Berez-berez, iturriari ur garbia legez darioz. Guztiak ez dira multzo berekoak. Batzuk herritik eta baserritarren ahotik harturikoak dira. Euskal Herrian zehar, gure herriaren ahozko kulturaren ondo finkatuak dira, ahoz aho zabal dabilzanak. Honeetarikoak dira, adibidez, *Esakun sakonak* eta *Esaera zarrak* izenez datozenak. Guztiak

dabe helburu didaktikoa. Barru-barruan ohitura onak eta kristau-morala irakasteko asmoa sumatzen da. Eta, jakina, bere garaian eta testuinguru horretan ulertu eta kokatu behar dira.

Esaldi asko errimatuak dira eta errimaz agertzeko ahalegina ageri-agerikoa da. Izan be, ahozkotasunean errimak leku zabalak dau eta hori estetikagaitik ez eze, arrazoi didaktiko eta praktikogaitik be badala esan daiteke, hau da, errima euskarri eta lagungarria da ahozko testuak oroimenean finkatzeko.

*

OLDOZKUNAK

K-Argia 1 (1931, 1. zk.) 15

1. Gogoan geien erabilli bear geunken egia eta gitxien erabilten doguna zein da? Il bear gareala.
2. Eriotzea txarra ez da, bizikera txarra eroan dauanarentzat baiño; ondo bizi izan diranak, eriotza aldi atsedena aurkitzen dabe.
3. Gaiztoaren inñartxi edo inbidiarik ez egizu izan; Jainkoaren begietan nazkagarri da-eta.

OLDOZKUNAK

K-Argia 1 (1931, 1. zk.) 28

4. Laster ilgo zarala gomutau egizu, betiko epaia be antxe artuko dozu.
5. Siñesgetasuna ekanduen galgarri da, giza biotzetik betiko zuzentasunaren ustea kentzen dau.
6. Lizunkeria (Nasaikeria) lore artean asi eta ondamenean amaitzen dan bidea da.
7. Gaiztoa eta arroa izateak norbaiti diru asko alperrik eragiltzen deutso.

8. Batzuk, ezkondu aurretik, uso antza daroe; baiña ezkondu ondoren mozolo utsak dira.
9. Lapurrak, besteak be alantxe dirala uste dau.
10. Zuretzat gura ez dozun gauzarik iñori ez egin.

OLDOZKUNAK

K-Argia 1 (1931, 3. zk.) 71

11. Idi nagia rentzat, ur zikiña beti.
12. Alperra eta nagia, lapur izateko gaia.
13. Alperkeria, griña gaiztoen mintegia.
14. Alper nagiak, etxera dakar gosea.
15. Berandu jagi, lanak atzera ibili.
16. Saloskari onena, lan zintzoro egitea.
17. Gaurko diran lanak, biarko ez atzeratu.
18. Biarko dan ogia, gaur irabazi.

OLDOZKUNAK

K-Argia 1 (1931, 8. zk.) 234

19. Bakerik zeugaz ez dozu izango, Jaungoikoagaz ez badaukazu.
20. Zure edertasuna, Jaungoikoa maite dozun neurriz izango da.
21. Egiz zoriontsuak izateko, egiz onak izan bear gara. Jaungoiko-maitasuna badago, dana ona da; jaungoiko-maitasunik ez badago, dana utsa da.
22. Dongeak direanak, onak aizun eta guzurtiak dirala esan daroe.

OLDOZKUNAK

K-Argia 1 (1931, 8. zk.) 246

23. Limosnea, lurrean kimua emon eta zeruan loretuten dan landarea da.

24. Jakituririk onuratsuen, ilteko ondoen gertatzen gaituana da.
25. Gaztetuteko bide bat dago: Ondo iltea.
26. Jaungoikoa iraindu baiño lenago, il bear gara.
27. Obenik txarrena, obendari izateko arrokeria da.

OLDOZKUNAK

K-Argia 1 (1931, 9. zk.) 287

28. Txindia (dirua) guztiak gurtuten daben jainkoizuna (idolo) da.
29. Txindia bizibidea gozotuten dauan gozokia da.
30. Txindia, donokira ezik, edonora sartzeko txantela, eta zoriona ezik, edozer jadesteko bidea da.
31. Atzoko ogi, gaurko argi, eta iazko ardaoak, osasuna dardarre.
32. Gari-ogia, arte-egurra eta esne zintzoa, etxea jagoteko lagun onak dira.
33. Gauza gustiak alde onetik artu egizuz.
34. Zuzena izatea, ez jatzu iñoiz damutuko.

OLDOZKUNAK

K-Argia 1 (1931, 10. zk.) 310

35. Gaizki egiña, goiz belu damutuko jatzu.
36. On egin, eta iñoiz ez jatzu damutuko
37. Zimeldu bako lorea eta orbandu bako gaztea, gauzarik maitagarriena.
38. Adiskide zintzoa, lurreko pozgarri onena.
39. Txarbidean ez dau jarraituko, ondo autortzen danak.
40. Dirua, zetako da? Arima galdu ezker, ezetako bez.
41. Urreaz, zer irabazi leiteke? Zerua edo infernua, ondo edo txarto zelan eralgiten dan.

42. Katolikoan kaltez zeintzuk batzen dira? Jainkoaren aginduak bete gura ez dituezan donga guztiak.

OLDOZKUNAK

K-Argia 2 (1932, 15. zk.) 72

43. Buru utsak baiño buru gogorragorik ez dago.
44. Zoritxarra, biotz andidunak garbitzen dituan urtokia da. Biotz erkindunak barriz garbitu bearrean lurrintu egiten dira.
45. Ezer gura ez dauanak, bizitzea bez, ezetariko bildurrik ez dauko, eriotzarena bez.
46. Gizonezkoak geienez ondo egoteagaitik egiten dabe gaiztakeria, andrazkoak arrokeriagaitik.

OLDOZKUNAK

K-Argia 2 (1932, 16. zk.) 116

47. Gure atsekaberik geienak, geure erruz izaten jakuz, besteiei errua botaten deutsegu_baiña.
48. Geure adiskideei emon bear deutsegu itun edo kontsejuri onuratsuena, pozgarria ez bada be.
49. Iñori itun kaltegarria emotea, gorrotoa izatea da.
50. Aberastasunak eta dirua, gizon jakitunentzako otseiñak dira, baiña zentzunbakoentzako etxeko agintariak dira.
51. Diruak eta soiñekoak, nasaiegi diranean eragozpide izaten dira, estuegi badira larregi lotuten dabe.

OLDOZKUNAK

K-Argia 3 (1933, 31. zk.) 216

52. Mundu onetan ez da atsegiñik, naigabe zerbait ez dakarrenik.
53. Egizko atsegiña zer dan, gaiztoak ezin jakin leike.
54. Besteen utsegiñak beti begien aurrean, eta bakotzak bereak sarri atzeko aldean.

55. Min gaiztoari, belarriak arantzaz inguratu.
56. Bere adiskidea bein saldu dauanak, adiskidetasuneko eskubidea galdu dau.
57. Barritsua danagaz, kontuz ibilli.
58. Ardaoa eta jan ona maite dituana, nekez aberasten da.
59. Bere aoa eta mingaiña zaintzen dakiana, naigabe askotatik aske dago.

OLDOZKUNAK

K-Argia 3 (1933, 31. zk.) 222

60. Jakintasan geiago bear da emazte eta ama ona izateko, sendagin (mediku) egiteko baiño. Kanpoko maian ez iñoiz geiegi jan.
61. Bere umeak maite dituanak, utsik ez deutse parkatzen.
62. Kristau ona lez bizi nai badozu, guztion azkenak sarri gogartu.
63. Ordu erdi irauten ez daunagaitik, betikotasuna galtzen da.
64. Biotz gaiztoan bakerik ezin izan.

* * *

OLDOZKAYAK

K-Argia 2 (1932, 16. zk.) 108

1. Ume gareala, zorionekoak gara eta ez dogu ezagutzen; gazte gareala, zoriontsuak izan geintek ez eta ez dogu nai; zar gareala, zoriontsuak izan gura dogu eta ezin izan gara.
2. Dirua (txindia) baiño otsein oberik eta maisu txarragorik ez dago.

OLDOZKAYAK

K-Argia 2 (1932, 17. zk.) 156

3. Txiro edo pobre izatera eltzeko bide ziur bi ezagutzen dodaz, iñoan Arsko Abade deunak: Jaiegunean lan egitea eta iñoren gauzea ostutea.

OLDOZKETAK

K-Argia 2 (1932, 18. zk.) 182

4. Adiskidetasunean gauzarik kaltegarrienak dira: leunkeria (lisonja), koipekeria, labankeria eta lerrakortasuna edo bigunegikeria.
5. Adiskidegaz dana itundu bear dogu, baiña adiskide ete dan itundu bear dogu lenengo.
6. Bedarrari ogi artean azten ez jako itxi bear, susmoari bez adiskideen biotzetan.

OLDOZKETAK

K-Argia 2 (1932, 21. zk.) 263

7. Bazkari andia maite dauanak, txirotasuna zer dan sarritxo jakingo dau: ardao eta janari aukeratuak maite dituana, nekez aberastuko da.
8. Bere aoa eta mingaiña zaintzen dakiana, naigabe askotatik aske dago.
9. Emondako berbea betetan ez dauana, euririk emoten ez dauan laiño baltza langoa da.
10. Eskean dabillenari biotza gogortzen deutsonak, eskatzaille il ez dedin bildur izan begi.
11. Zoro bat naiko da arri andi bat ibaira botatzeko, sei jakintsu bear dira andik ateratzeko.

* * *

EGI ONURATSUAK

K-Argia 1 (1931, 2. zk.) 54

1. Asarre bazara, erabagi astunik ez artu.
2. Aitak semeari ezer agindu orduko, erakutsi ona emon begio, berak lenago egiñaz.
3. Gurasoak seme-alaben aurrean ezbai eta asarrerik ez euki.
4. Gurasoak umeei gazte-gaztetatik lan egiten erakutsi.

EGI ONURATSUAK

K-Argia 1 (1931, 2. zk.) 57

5. Gogo onez egiñiko lanak ez dau aspertzen.
6. Irabazi baiño len ez zorrik egin.
7. Ezetarako ez dozun gauzarik, merkea dalakoan, bein be ez erosi.
8. Gaur egin zeinkena, biarko ez itxi.
9. Zeuk egin zeinkena, besteri ez egiñazo.

EGI ONURATSUAK

K-Argia 1 (1931, 11. zk.) 338

10. Bide onetik ibilli, eta ona izango zara.
11. Bide txarretik bazabiltza, gaiztoa izango zara.
12. Lan eikezu atsedenduteko, eta atsedendu lan egiteko.
13. Eskekoei (pobreei) al dozun guztian emon, ezer ez dozu galduko eta.
14. Arerioari parkatzen deutsonak, adiskidetzat Jaungoikoa irabazten dau.

* * *

EPAI ONURATSUAK

K-Argia 3 (1933, 26. zk.) 52

1. Zeure lagunei ondo beti egin, euren adiskidetasuna irabazteko; zeure arerioei be ondo egin, azkenik zure lagun izan daitezcan.
2. Zure etxeko gauzak zaindu egizuz, eta ogia eta egurra zenbatean erosten dan jakingo dozu; zure seme-alabak azi egizuz, eta zeure gurasoei zenbat zor deutsezun eza-gutuko dozu.

EPAI ONURATSUAK

K-Argia 3 (1933, 28. zk.) 120

3. Besteren ondasunak euren jabeentzat itxi egizuz, zeureak zeure eskuetan ikusi nai badozuz.
4. Zeozer egin baiño lenago zer egitera zoazen ondo begiratu egizu.
5. Geiegizko apalkeria (umiltasuna), geiegizko arrokeria izan leiteke.
6. Irakastea, bi aldiz ikastea da.
7. Ondo itz egiteko, itz gitxi egin bear dogu.
8. Etxe barruan baiño etxetik urrin gozotasun geiago agertzen dabenak, euren etxea ez dabe maite.
9. Oitura dala-eta, ona ete dan begiratu barik, ezer ez da egin bear.
10. Ots txarra izan arren, izan leiteke txanpon ona; eta ots ona daben guztiak ez dira onak.
11. Txakurkeri bat egiten dauan lagunak, beste batzuk be egin leikez.

EPAI ONURATSUAK

K-Argia 3 (1933, 31. zk.) 213

12. Zaintzen ez dan lurrak, berez ekarkorra izan arren, sasi eta arantzak aziko dauz; olantxe da gure adimena.
13. Askoren artean, itz gitxi egin bear dozu, uts asko egitea nai ez badozu.
14. Irri eta barre ez egin iñorgaitik.
15. Gure bizitzaldian edozenbat neke jatorkuzan ezkerro, eurok ondo igaroteko adiskiderik onena Jesus gurutzatua dogu.
16. Atsegiñen bidez zerua ez da irabazten.
17. Gure gorputzak, asko emoten bajako, geiago eskatzen dau beti.
18. Gogo garbia Jainkoaren atsegindegia da.

* * *

AOLKU JAKINGARRIAK

K-Argia 1 (1931, 8. zk.) 242

1. Jateko ordurik egokiena zein da? Aberatsentzako, gogoa dauken ordua; txiroentzako, zer jan daukana.
2. Osasun ona izateko, geiegi ez da jan bear; larregi jatetik gaixo geiago datoz, gitxi jatetik baiño.
3. Askoren aurrean zagozanean itz gitxi egizu, eta zarren onuak gogoz artuizuz.

AOLKU JAKINGARRIAK

K-Argia 1 (1931, 9. zk.) 272

4. Gauza guztietan apala izan zaitez, ba arroa iñok ez dau nai ikusi.

5. Asarreari zure biotzean sartzen ez itzi, eta lagunei asarrez iñoiz ez itz egin.
6. Asarreagaz osasunari kalte andia egiten deutsozu, asarrekorrak ez dira zar egiten.
7. Asarratu eta irritu zaran bakotxean, ordu batzuk zeure buruari laburtzen deutsozuz, ba odola geldi samar dago eta jana nekez eioten dozu.
8. Luzaro bizi gura badozu, 969 urtean Matusalen lez ez bada be, gibel andiak azi eta, datorrena datorrela, naretsu eta baketsu artu.

* * *

ESAKUN SAKONAK

K-Argia 1 (1931, 4. zk.) 111

1. Artzaiñak asarratu, gaztaiak agertu.
2. Izarrak ateratzean, neskatzak begoz etxean.
3. Ardao gozoak lau begi, eta oiñik ez.
4. Azeri zarrari ulia joan, baiña antza ez.

ESAKUN SAKONAK

K-Argia 1 (1931, 4. zk.) 120

5. Erroiaren arrautzeak, usakumerik ez.
6. Txakur goseak, ogia amets.
7. Zoroan ezta, gozoa guztia.

ESAKUN SAKONAK

K-Argia 1 (1931, 8. zk.) 250

8. Guztia nai izatea, guztia galdutea.
9. Eguzkia nora, zapiak ara.

10. Ibiltari gabian, logura goizian.
11. Egia, askoren erregarria.
12. Errementariaren etxean, zotza burrunzti.
13. Goiz jagia, goiz gose; belu jagia, loz ase.
14. Zor zarra, lor txarra.
15. Jan-edan gozoa, kontu emoilte gaiztoa.

ESAKUN SAKONAK

K-Argia 1 (1931, 9. zk.) 265

16. Edurra bere aroan asegarri, andik atera gosegarri.
17. Daukanak gabon, ez daukanari emon.
18. Etxe utsa, atralaka utsa.
19. Oillo gosea, beti soiñulari.
20. Lekuan-lekuan ardiak, baltzen artean zuriak.
21. Auzoko beiak, erroa luze.
22. Maria bitxigiña, sua da ogigiña.
23. Ardao gozoak lau begi, eta oiñik ez.

ESAKUN SAKONAK

K-Argia 1 (1931, 10. zk.) 308

24. Azeri zarrak allia luze, bere legezkoak besteak uste.
25. Otsoak otsoari gaitzik ez, eta lapurrari lapurrak laztan.
26. Azeak, berea kirtena, eta aritzak bere erikoa ezpala.
27. Mari gurea goruetan, bear ez dan orduetan.
28. Lekuan-lekuan maillua, gurian andiagua.
29. Soldadua, amaren seme galdua.
30. Topiñak galdareari, ipur baltz.

ESAKUN SAKONAK

K-Argia 1 (1931, 11. zk.) 327

31. Ez dakusan begiak, gatzik ez.
32. Zaietan ziogi, urunetan ero.
33. Astoaren arrantzea, min bagea.
34. Gaberdiko auntzaren eztula, ardura bakoa.
35. Zulo bakotxari, laakua.
36. Igazko kabietan, aurten txoririk ez.
37. Igazko txakurra, aurtengoaren urkatzaille.
38. Otz larregi, zarren ilgarri eta gazteen zargarri.

ESAKUN SAKONAK

K-Argia 2 (1931, 16. zk.) 114

39. Sua dagoan tokitik, kea.
40. Ontzari ez begiratu lumara.
41. Bakotxa bere zoruak bizi.
42. Katuak daroan sardiñari, oratu egiok.
43. Guzurra esan mendian, neu baiño lenago errian.
44. Guztia gura izatea, guztia galdutea.
45. Arrankariak begi bi, sei ezkailluk amabi.

* * *

ESAERA ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 63

1. Gizonak ekin, eta Jaungoikoak egin.
2. Gabon, barri on, Jaungoikoak emon.

3. Gurasoak zelangoak, umeak alangoak.
4. Kanpoan uso, etxean otso.

ESAERA ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 86

5. Gabaz errondan eta goizean logura, neska nagiak orixe gura.
6. Edale on gitxi, irule on; irule on gitxi, edale on.
7. Esan-egiñak parkatu, eta urrengoan sakatu.
8. Illak lurpera, biziak maira.

ESAERA ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 91

9. Neskazarrak, izen txarra; mutilzarrak, azken txarra.
10. Oilo gosea kantari, neska gosea dantzari.
11. Okilla kantetan, euria atetan.
12. Gizona agea eta andrea aizea; agea ausi eta agur aizea.
13. Aritz bakarra eta alaba bakarra, ugazaba eta amaren negarra.

ESAERA ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 97

14. Ateak ateari darraikonean, ona da arto beroa ezkaratzean.
15. Ederra nazanean, banaukazu; ederra ez nazanean, ez naukazu.
16. Baleuke eta balitz, alkarren ondoren dabiltz.
17. Daukanak, dauko; ez daukanak, baleuko.
18. Lengo zarren esaerak, guztiak jazoerak.
19. Asko daki zarrak, erakutsi bearrak.

ESAERA ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 103

20. Iretargia argia da, baiña eguna baizen argia ez; iñoren ama ona da, baiña norberarena baizen ona ez.
21. Gorbeiaiko belea, Gorbeiaara jokerea.

ESAERA ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 113

22. Diruduna baiño, dirugiña oba.
23. Gose-urtea, osasun-urtea.
24. Gauza zarra, bera larra.

ESAERA ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 124

25. Gazteak gaztelu; zarrak mazkelu.
26. Egizu beti on, ez jakin arren non.
27. Erriz aldatzea, zarren eriotzea.

ESAERA ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 63

28. Ao itxian ez doa sartu eulia, eta aldi guztietan ez da eder ogia.
29. Larrak larritzen, gitxiak arbintzen.
30. Aldi txaburra, lasterra bada, egun astia baiño obe da.

ESAERA ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 81

31. Gogozko tokian, aldaparik ez.
32. Aseak gosea ezin ikus.
33. Urdaia eta ardaoa urtekoa; adiskidea urteetakoa.
34. Ankak ariñak eta burua ariñago, dantzan obeto daki ar-tajorran baiño.

35. Baltz guztiak ez dira ikatzak, ezta zuri guztiak be uru-
nak.
36. Goiz guztiak dabe euren arratsaldea.

* * *

BASERRITARREN ESAKUN ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 31

1. Gizona gizon; katua mixon.
2. Lan egiteko, mutiko; jateko, gizonko.
3. Amabiak, gure lapikoaren agoniak.
4. Amairu, atsoak agurea nai du.
5. Eragiñago eta ziriñago.
6. Emona bat, artua bi; emonak galdua dirudi.
7. Ondo egiñen pagua, ate ondoan palua.
8. Nori berea da zuzenbidea.

BASERRITARREN ESAKUN ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 43

9. Ogi asiak ez dau lotsarik.
10. Nasteborraste, azak eta naste.
11. Luzaro nai badozu bizi, zartzen gaztetik bear dozu asi.
12. Itsuak ikusgura, errenak ibilgura, gorrak entzungura.
13. Ito bear eta ito egin.
14. Asko daki zarrak, erakutsi bearrak.
15. Guzurra, begi ondoan zurra.
16. Begi guztiak egun baten ez dabe negar egiten.

BASERRITARREN ESAKUN ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 53

17. Umearen ikasia, etxean ikusia.
18. Mutillak buruan be esteak daukez.
19. Gizona agea eta andrea aizea; gizona jausi eta agur aizea.
20. Kanpoan uso; etxean otso.
21. Gabeko bearra, egunez ikusi.
22. Etxeko andrea nongo, gure aideak ango.
23. Abadearen lapikotxa txikerra baiña gozoa; ikazkiñaren lapikotoa, andia bapa artoa.
24. Lau, lau, lau; ardaoak galdu nau.
25. Agur, ekarri lepo bete egur.
26. Anega erdiko zorroak, anegarik ezin artu.
27. Bakotxak bere itzala.

BASERRITARREN ESAKUN ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 59

28. Baratzetik, gosea, baratzetik asea.
29. Daukaguna soiñean, dakiguna miñean eta ibili kalean.
30. Pareak bai, andrarik ez eta umeak nai.
31. Zuen osasunerako eta neure onerako.
32. On dagigula janak, gatxik ez edanak, obe zear etzanak.

BASERRITARREN ESAKUN ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 87

33. Aita irabazle, seme ondatzale.
34. Ipar-aizeak leku gorderik ez, pobreak adiskiderik ez.

35. Nai dala euria, nai inetasia, beti aterpean dago errementaria.
36. Aorako bidean sasirik ez.
37. Umeak azi eta nekeak bizi.
38. Gizon ilak bizarra otz.
39. Ezkondu arte epea luze, ezkondu eta benengo libre.
40. Ganora bakoien etxean, goizeko salda arratsean.
41. Etxeko suak etxean batu: ez inora aldendu.
42. Osasuna eta bakea, lapiko ondo betea; andra galanta eta dotorea da askoren ameseta.
43. Nire pozak pozura, amets zoroen modura.
44. Zelango soiñularia, alango dantzaria.
45. Koitadua: zorriren koiñetua.
46. Tratua tratu; gizonak poltsa, deabruak daroa olango ezkontza.
47. Au eta ori eta bestea, txakurraren odolostea.

BASERRITARREN ESAKUN ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 100

48. Aldiz aldiz, zapatariak zaldiz.
49. Gazteak gaztelu eta zarrak ganelu.
50. Ara bertan ezer ez; azak bai, koiperik ez.
51. Etxeak bear eta bideak ekarri.
52. Amen datoz iru neskatila: zuringo eta gorringo eta Maria Pantorrila.
53. Andikia, infernuko ilintia; aberatsa, infernuko legatza; pobrea zeruko lorea.
54. Bakotxak bere opilari su, eta bere santuari erregutu.

55. Baserritarra: tirritarra, iretzat uzkerra, niretzat sagarra.
56. Txikerrentxoaz laztanen, testamentuan atzenen.

BASERRITARREN ESAKUN ZARRAK

Karmengo Amaren Egutegia 2 (1952) 135

57. Labako txoriak labara nai.
58. Kitu eta kitu; asto bat il eta beste bat piztu.
59. Iretargia argia da, baiña eguna baizen argia ez. Iñoren ama ona da, baiña norberarena baizen ona ez.
60. Gure katuak buztana luze, norbera lez besteak uste.
61. Gure beiak erro andiago, eta zuenak esne geiago.
62. Gorbeiake beleak, Gorbeira jokeria.
63. Au da mutilla! jateko opilla.
64. Moduak onak, maiñak lenak.
65. Alaba bi eta iru seme, adinon ume.

* * *

ADISKIDE ONAK

K-Argia 1 (1931, 3. zk.) 87

1. Adiskiderik onenatarikoak liburu onak dira. Liburu on bat, ogi zati bat eta bakartasuna, edozein zorionsu egiteko naikoa dira.
2. Adiskideak, bein baiño sarriago, egia garbi esateko bildur izaten jakuz, zerbait galdu leikeelako edo nai dabena jadetsiko ez dabelako.
3. Liburuak olango lotsarik edo bildurrik ez dauke, eta baikoitzari, garbi, dagokiona esaten deusie.

4. Gizon zuzenaren begi-belarriak, liburu onak dira-eta eurak aukeratzea eginkizun arduragarria da.

* * *

ALPERKERIA

K-Argia 2 (1932, 22. zk.) 320

1. Alperkeria, bere semeak gosez ilten izten dituan ama endekatua da.
2. Alperkeria, zorotasunaren ate zabala da.
3. Alperkeriak, ugerrak burdiña lez, bizitza zitalduten dau.
4. Alperkeria baiño buztarri astunagorik nekez aurkitu leiteke.
5. Alperra izateak izen ona (ospe) laidotuten deusku.
6. Alperra, bai gura eta ez gura batera dabil.
7. Alperrenaren etxea, sasiz beteriko soloaren antzekoa izango da.
8. Alperra eta nagia, etxerako baiño auzorako da obia.

* * *

ETXEA ONDATUTEKO SEI BIDE

K-Argia 3 (1933, 25. zk.) 15

1. Biraoa. Biraotiaren etxean Jaunak ez dau egon gura, eta zoritxarra izan bear.
2. Ugorkondo edo alkoholismoa. Ardandegiko upelaren gilitza, espetxerako (kartzela) atea zabaltzeko lez ogi-kutxa sarratzeko bardin oi da.

3. Lizunkeria edo aragikeria. Izurri baltza baiño kaltegiña-
goa da. Gorputzak eta arimak galtzen dauz.
4. Jokoa. Onegaz iñor ez da osoro aberastu, baiña asko on-
datu dira osoro. Jokalariaren etxea, zorigaiztokoa.
5. Alperkeria. Ekandu txar guztien ama da.
6. Jaiegunak ausi. Jai-egunean irabazitako dirua, tabernara
edo botikara doa. Jai-egunetako lanagaz aberastutako
iñor ez da izan.

* * *

Amar onu

K-Argia 3 (1933, 29. zk.) 140

1. Guztiak beti ondo egin.
 2. Iñorgaitik gaizki ez esan.
 3. Ezbai bat erabagi baiño lenago ondo oldoztu.
 4. Norbait asarre danean ixilik egon.
 5. Egin al leikion laguntza iñori ez ukatu.
 6. Zorigaiztokoei lagundu.
 7. Norberaren utsegiteak autortu.
 8. Zorra naiz alogera ordaintzea ez luzatu.
 9. Besteen utsegiteakaitik ez samindu.
 10. Miñ gaiztoak diñoena ez siñistu.
- Amar gauza oneik betetan badozuz, ez jatzu damutuko.

* * *

Biotz-imurtxiak

Karmengo Amaren Egutegia 1 (1951) 123

1. Biotza da guztiz sakona, ertz eta ondorik ez dauana: Berra betetako naikoa, bakarrik da Jainkoa.
2. Negar eragin deutzazuna, asko maite bear dozuna.
3. Guzurra eta mormorreta, zugandik urruti bota.